



NAFARROA/EUSKAL HERRIA

2004-2024

ADIERAZLE GALERIA

Argitaratze-data: 2025ko ekaina.

Argitaratzailea: Gaindegia. Euskal Herriaren garapen sozial eta ekonomiko iraunkorrerako behategia.

Internet helbidea: www.gaindegia.eus

Edukien, diseinu, mapak eta datuak: Aztiker.

Testu originalak: Aztiker, Gaindegia.

Argazkiak: Foku, Gaindegia.

Babesleak:



NAFARROA/EUSKAL HERRIA

2004-2024

ADIERAZLE GALERA

AURKIBIDEA

2004-2024 ADIERAZLE GALERIA

NAFARROA 2025: DATU NAGUSIEN SINTESIA

DEMOGRAFIA

1.1	BIZTANLERIA	18
1.2	BIZTANLERIAREN ADIN EGITURA	20
1.3	MIGRAZIOAK	24
1.4	JAIOZAK ETA HERIOTZAK	26

EKONOMIA

2.1	BPG: URTE ARTEKO HAZKUNDEA	30
2.2	BPGa BIZTANLEKO	31
2.3	BALIO ERANTSIAREN EGITURA	32
2.4	ONDASUN ETA ZERBITZUEN ESPORTAZIOAK	36
2.5	ONDASUN ETA ZERBITZUEN INPORTAZIOAK	41
2.6	MERKATARITZA-BALANTZA	45
2.7	BERRIKUNTZA JARDUERAK	47
2.8	LANAREN PRODUKTIBITATEA	49

GIZARTEA

3.1	EUSKARA	56
3.2	FORMAZIO MAILA	59
3.3	HERRITARREN JARDUERA	61
3.4	EMPLEGU MAILA	64
3.5	LANGABEZIA MAILA	66
3.6	KONTSUMO PREZIOEN BILAKAERA	68
3.7	POBREZIA ARRISKUA	69
3.8	GIZARTE BABESEKO INBERTSIOA	70

INGURUMENA

4.1	AIREAREN KUTSADURA	74
4.2	KLIMA ALDAKETA	75
4.3	ENERGIAREN KONTSUMOA ETA ERREGAIAK	76
4.4	ELIKAGAIEN KONTSUMOA	78

GAINDEGIA 2030

ERREPORTAJEA	87
--------------------	----



Iñaki Dorronsoro
Lehendakaria

HITZAURREA

Hogei urte bete dira aurtan GAINDEGIA sortu zenetik, eta 2020-2021eko mundu mailako osasun krisiak garai berrietara egokitu beharra ekarri digu guri ere. Hala, egokitzapen horretan dihardugu joan deneko bi urtean, eta, aurtan, zerbait berezia egiteko eta GAINDEGIAren berpiztea profitatzeko, erronka jarri diogu geure buruari Zuzendaritza Batzorde berrian: hogei urte honetan sozioekonomiaren alorrean munduan gertakari benetan garrantzitsuak gauzatu direlarik (gero aipatuko ditudanak), bi hamarkadotako jarraipen estatistikoaren txostena lantzea. Horri ekin diogu hilabeteotan, eta txosten hori aurkituko duzu datozen orrialdeotan, irakurle.

Jarraian datozen orrien edukia eta testuingurua aurkeztu ondoren, utz iezadazu gure egitekoaz gogoeta xume bat zurekin elkarbanatzen.

Gogoan dut estrategia, enpresan zuzenean praktikatzan, hainbat lurralde erakundetako arduradunei laguntzen eta unibertsitatean irakasten aritutako garai haietaz. Ikasi genuen helburu estrategikoak lan-ildo estrategikoen bitartez lortzen direla eta lan hori era sistemiko eta dinamiko batean ingurune-faktore batzuek baldintzatuta egoten dela.

Gogoan dut bai barneko bai kanpoko informazioak duen garrantzia. Eta “adimen estrategikorako” deitzen genituen sistemak garatzen nola saiatu ginen han eta hemen.

Helburu estrategikoei —edozein dela ere erakundea— oinarritzko arrakasta-faktoreak zehazten dituzte, dagozkien adierazleekin. Lan-ildo estrategikoei, berriz, jarduera erabakigarriak zehazten dituzte bakoitzari dagozkion adierazleekin. Eta, azkenik, ingurune faktore gakoak ingurune adierazleek zehazten dituzte. Eus kal Herriaren kasuan ingurune hori beste herrialdeak eta mundua izanik.

Oso garbi daukat datu batuketa ez dela informazioa eta gutxiago ezagutza. Beste modu batez esanda, informazioak eta datu kopuru multzoak ez dakar ezinbestean ezagutza. Ezagutzak gogoeta eta analisisa eskatzen baititu. Horregatik, eskura dauden datuek zentzua eta bihotza daukan sistema bat osatu behar dute. Eta bihotz hori pertsona, enpresa edo herri baten helburu estrategikoei ematen diote.

Datuak ez dira neutroak, Euskal Herriaren helburu estrategikoak —interes eta botere joko asimetrikoen adierazle izanik— neutroak ez diren bezalaxe. Ganibetak ere sukaldeko kajoian sartuta neutroak izaten dira, baina handik aterata berdin balio dute patata-arrautzopil gozo bat egiteko edo bakarren bati lepoa mozteko.



Estrategia eta adierazleak txanpon baten bi aldeak dira. Herri estrategiarik gabe, adierazle multzo handi bat neurtzeak zentzua eta lehentasunak ezkutatzeak arriskua dauka, eta adierazlerik gabe inongo zentzurik gabe noraezean ibiltzekoa. Euskal herritarrok, zoritxarrez, hiru adierazle sistema elikatzen ditugu. Adierazle sistema oso baten gabezia herri estrategia ezaren ezaugarri garbia da. Errealitate horrek herri baten zentzua ukatzen du, eta sakabanaketa egituratzen.

Duela 32 urte, 1992an, Robert Kaplanek eta David Nortonek Aginte Koadro Integral famatua proposatu zuten enpresetako datu finantzarioetatik harago joateko. Nahiko antzera, 2013an Joseph Stiglitzek eta Amartya Senek, berrogeita hamalau adierazlek osatuta, Giza Garapenaren Indizea proposatu zuten BPGaren mugak gainditzeko. Geroztik, antzeko adierazle sistemak azaltzen joan dira han eta hemen mundu guztian. GAINDEGIAk, orain dela hogeitazazpi urte, 29 adierazlez osatutako sistema hartu zuen, eta urte hauetan guztietan bere txostena argitaratu du.

Hogei urte honetan, munduan eta Europan, Euskal Herriari, Nafarroa Garaiari, gure herriari eragin dioten eta, aldi berean, aukerak eskaini dizkieten gertakari geopolitiko, ekonomiko, demografiko, teknologiko eta kultural asko izan dira.

Munduko biztanleria 5.660 milioitik 7.240 milioira handitu da, baina hazkunde tasa geldotzen joan da. Muturreko pobrezian bizi diren pertsonen kopurua gutxitu egin da, baina ezberdintasun ekonomikoa handitzen ari da. Mundua geroz eta urbanoagoa da, eta inoiz ez dute hainbeste pertsonak migratu. Aldi berean, mundua zahartzen ari da, eta gatazken ondorioz beraien herrialdeetatik alde egindako pertsonen kopurua errekorrak hausten ari da; bereziki, emakume eta haurren kasuan.

Ekonomiaren hazkunde mugagabea gurtzen duen zibilizazio honek arriskuan jarri ditu munduaren klima, baliabide eta ekosistemen orekak. Ezin da aurretik jakin teknologia digitalak eta azken olatuaren (adimen artifizialaren) abiadurak eragindako aldaketak disruptiboek norantz egingo duten.

2001eko irailaren 11ko erasoan ondoren, 2007-2008an finantza krisi handia etorri zen. 2020an, berriz, COVID 19aren krisi ekonomiko eta soziala, eta 2022an Errusiak Ukrainaren inbasioa abiatu zuen. Azkenik, 2023an Israelen eta Palestinaren arteko gerra krudela hasi zen.

Erdigune teknoekonomikoa Asia ekialdera mugitzen joan da, Bigarren Mundu Gerraren ondorengo Estatu Batuen nagusitasunaren kaltetan. Europak, berriz, erdi periferiara joatea beste erremediorik ez duela ematen du. BRICS blokea sendotzen eta zabaltzen joan da Mendebaldeko nagusitasunari aurre eginez.

Eszenatoki horretan, Euskal Herriaren eta Nafarroa Garaiaren ibilbidearen argazki deskribatzaile bat egiten saiatu gara, gogoetarako eta estrategia finkatzeko material estatistiko koherentea eskura jarrita.

Erakunde publiko, elkarte, kutxa eta bazkide eta boluntarioen emozio eta laguntza ekonomikorik gabe ez zen posible izango. Eskerrik asko denoi.



**2004
2024**

**ADIERAZLE
GALERIA**



0

NAFARROA 2025: DATU NAGUSIEN SINTESIA

NAFARROA 2025:

DATU NAGUSIEN SINTESIA

Txosten osoan zehar aurkeztutako datuak eta joerak kontuan hartuta, atal honetan Nafarroa Garaiko egoera sozioekonomiko eta demografikoaren ikuspegi orokor eta egituratua eskaintzen da, Euskal Herriarekin konparazioan.

1. DEMOGRAFIA: BIZTANLERIA ETA EGITURA

2004tik 2025era bitartean, Nafarroa Garaiko biztanleria etengabe hazi da. 2004an 576.346 biztanle izatetik, 2025ean 683.525 izatera igaro da, hau da, 107.179 lagun gehiago (%18,6). Hazkunde hori ez da lineala izan: 2004-2008 artean azkarragoa izan zen, 2008ko krisi ekonomikoaren ostean moteldu zen, eta 2015etik aurrera berriro bizkortu da, nahiz eta erritmo neurritsuan.

Euskal Herri osoarekin alderatuta, Nafarroak hazkunde bizkorragoa izan du, izan ere, Euskal Herrian %10 inguruko hazkundera izan da epe berean. 2025ean, Nafarroak Euskal Herriko biztanleriaren %21 osatzen du, Bizkaiaren (%35,9) eta Gipuzkoaren (%22,5) atzetik, baina Araba (%10,6), Lapurdi (%8,5), eta Iparraldeko beste lurraldeak (Nafarroa Beherea %1, Zuberoa %0,4) gaindituz.

Adin-egiturari dagokionez, 2007tik 2022ra bitartean joera hauek hauteman dira: 0-4 urte bitarteko haurrak gutxitu dira; gazte kopurua egonkor mantendu da, igoera apalekin; eta 65 urtetik gorako kopurua, bereziki 85 urtetik gorako emakumeena, nabarmen hazi da. Adinekoen artean emakumeek gizonak baino biziraupen handiagoa dute. Zahartze-indizea 137,2koa da 2022an Nafarroan, hau da, 100 haur bakoitzeko 137 adineko daude. Euskal Herrian, indize hori 167,7koa da.

Batez besteko adinak ere gora egin du: 2007an 40,9 urte ziren Nafarroan, eta 2022an 43,4 urte. Euskal Herriko batez bestekoarekin konparatuta, Nafarroa gazteenetako lurraldea da oraindik. Iparraldeko lurraldeetan adin nagusiagoak dira: Zuberoan 47,5 urte, esaterako.

2. MIGRAZIOA ETA JAIOTZA-HERIOTZEN BALANTZEA

2022ko datuen arabera, Nafarroako biztanleen %71,1 Euskal Herrian jaiotakoa da, eta %28,9 kanpoan jaiotakoa. Espainiatik etorritakoak dira nagusi (79.950 pertsona), eta ondoren Maroko (17.797), Ekuador (14.948) eta Kolonbia (11.293) datoz. Hori dela eta, Nafarroako gizartea gero eta anitzagoa da jatorri geografiko eta etnikoari dagokionez.

Jaiotzen kopurua nabarmen jaitsi da: 2009an 6.844 haur jaio ziren, eta 2023an 4.496. Aldiz, heriotzak igo egin dira: 2009an 5.147 izan ziren eta 2023an 5.847. Pandemia urtean (2020) 6.662 heriotza erregistratu ziren. Saldo begetatiboa 2009ko +1.697tik 2023ko -1.351era igaro da. Hau da, 2017tik aurrera, urtero heriotza gehiago izan dira jaiotzak baino. Euskal Herrian ere joera bera hautematen da: jaiotza-tasa 2008ko 10,2tik 2023ko 6,4ra jaitsi da; Nafarroan 6,7koa da 2023an

3. EKONOMIA: BPG, EGITURA ETA EBOLUZIOA

Nafarroako Barne Produktu Gordina (BPG) 2000tik 2023ra %83 handitu da eurotan: 20.300 €-tik 37.255 €-ra biztanleko. EAParen arabera, 23.100 €-tik 41.300 €-ra igo da epe berean. Nafarroa Garaia Euskal Herriko batez bestekoaren gainetik dago (39.089 €), eta alde hori handitu egin da azken urteetan.

Hazkunde ekonomikoa ez da lineala izan. Krisialdiak nabaritu dira 2009an (-%3,3), 2012an (-%3,8) eta 2020an (-%9,1), baina 2021etik aurrera hazkunde sendoa izan da berriro, %11,5 inguruko igoerarekin 2021ean.

Balio Erantsi Gordinaren egiturari erreparatuta:

- Lehen sektoreak %3,8ko ekarpena du (egonkor).
- Industriak %29,9koa da 2023an (beheranzko joera leuna).
- Eraikuntzak %5,6 (%11tik jaitsita, 2008ko krisiaren ondorioz).
- Zerbitzu komertzialak %21,4ra jaitsi dira.
- Zerbitzu profesionalak eta aurreratuak %11,8tik %19,1era igo dira.
- Zerbitzu publikoek (%20,2) pisu egonkorra dute.

Euskal Herriarekin alderatuta, Nafarroak industria-pisu handiagoa mantentzen du (%29,9 vs. %25,7), eta zerbitzu publiko eta profesionaletan pisu txikiagoa du.

4. ESPORTAZIOAK ETA INPORTAZIOAK

2016–2022 artean, Nafarroako esportazioek %44,3 egin dute gora: 14.252 milioi €-tik 20.561 milioi €-ra. 2020ko beherakada arina izan zen (%–8,3), baina 2022an %16,5eko susperraldia izan zen.

Esportazioen helmuga nagusiak:

- Espainia (%47,6)
- Frantzia (%9,9)
- Alemania (%8)
- Italia, Portugal, Erresuma Batua (%2–5 artean)
- AEB (%2–4), nahiz eta 2022an %2,3ra jaitsi zen

Hego Euskal Herrian, esportazioen dibertsifikazioa handiagoa da, eta Espainiarekin dagoen menpekotasuna txikiagoa da (%36,7). Horrez gain, AEBen eta beste herrialde batzuen pisua handiagoa da.

Inportazioei dagokienez, Nafarroak 2016an 9.244 milioi € inportatu zituen, eta 2022an 17.012 milioi € (%84ko igoera). 2022ko hazkundea %42koa izan zen, nabarmen Euskal Herriko batez bestekoa baino handiagoa.

Jatorri nagusiak:

- Espainia (%56,7)
- Alemania (%10)
- Frantzia (%4,6)
- Txina (%3,7)
- Gainerako herrialdeak: pisu txikiagoa

Euskal Herriak, berriz, Espainiaren menpekotasun txikiagoa du (%41,5) eta jatorri geografiko anitzagoa.

5. MERKATARITZA-BALANTZA

Merkataritza-balantza positiboa izan da Nafarroan 2016tik 2022ra. Esportazioak inportazioak baino handiagoak izan dira urtero, nahiz eta aldea murriztu egin den azken urteetan. 2022an, esportazioen bolumena 20.561 milioi € izan zen eta inportazioena 17.012 milioi €.

6. INBERTSIOAK, LANSARIAK ETA ERRENTA

Nafarroako ekonomiak inbertsio maila altuak izan ditu azken urteetan. Kapital Finkoaren Eraketa Gordina (KFEG), hau da, jarduera ekonomikorako ekoizpen-baliabide berrietan egindako inbertsioa, 2022an BPGaren %22,5koa izan zen Nafarroan, eta %19,9koa Euskal Herrian.

I+G (Ikerketa eta Garapena) jardueren presentzia handitu egin da Nafarroan 2000ko hamarkadan, baina 2009tik aurrera egonkortasun-fase batean sartu da. Euskal Herrian, berriz, dinamika gorakorragoa izan da. Teknologia aurreratuko enplegua hazten ari da Nafarroan, baina EHren batez bestekoaren azpitik oraindik.

Langileko batez besteko soldata Nafarroan 2023an 41.500 euro ingurukoa izan da urtean. Lanordu bakoitzeko soldata, berriz, 26,2 eurokoa. Euskal Herri osoan, datuak zertxobait altuagoak dira: 43.949 euro urtean eta 28,5 euro lanordu bakoitzeko.

Soldata hauen bilakaera positiboa izan da 2000tik 2023ra bitartean, bereziki 2000–2009 aldian. 2010etik aurrera, soldata-hazkundea moteltzen hasi zen, eta egonkortze fase batean sartu da.

Produktibitatearen aldetik, Nafarroak emaitza onak erakutsi ditu. BPGa langile bakoitzeko nabarmen handitu da 2000tik 2023ra, nahiz eta urte arteko aldakortasun handia egon den krisien garaian.

Biztanleko errenta erabilgarria —hau da, pertsona batek kontsumorako edo aurrezteko duen benetako diru-sarrera— 2022an 19.400 eurokoa izan zen Nafarroan. Euskal Herrian, berriz, 21.400 eurokoa. 2000an Nafarroak EHren batez bestekoa gaingitzen zuen, baina azken urteetan alde hori handitu egin da Euskal Herriaren alde, lurraldeen arteko ezberdintasunak areagotuz.

7. GIZARTEA: HEZKUNTZA, EUSKARA, ENPLEGUA ETA ONGIZATEA

Nafarroa Garaiko euskararen presentzia lurraldearen arabera aldakorra da. Iparraldeko eskualdeetan euskaldunen proportzioa %70etik gorakoa izan daiteke, erdigunean %30 eta %60 artean dabil, eta hegoaldean, berriz, %1etik beherakoa da. Iruñean bertan %11,8koa da euskaldunen ehunekoa, inguruko herrietan zertxobait handiagoa bada ere. Aldaketa handirik ez da azken urteetan hauteman hizkuntzaren erabileran.

25 eta 64 urte arteko biztanleen artean, hezkuntza-maila altua da Nafarroan. Goi mailako ikasketak dituztenen proportzioa handitzen ari da, eta horrek egitura sozioekonomikoan eragin zuzena du. Eredu elebidunetako matrikulazioan Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan jaitsiera txikiak egon badira ere, matrikulazioa oraindik altua da (%45 inguruan). Batxilergoan, aldiz, eredu hauen matrikulazioak egonkor mantendu dira, %28 inguruan.

Langabezia-tasak bilakaera murriztailea izan du azken hamarkadan. 2013an %18ra iritsi zen Nafarroan, baina 2024an %7,7an kokatu da, Euskal Herriko batez bestekoaren (%8,0) azpitik. Emakumeen langabezia-tasa (%8,5) gizonena (%7,0) baino altuagoa da. Adinari dagokionez, 25-54 adin tartekoen artean lan-merkatuan parte-hartzea handiagoa da.

Pobreziaren edo gizarte-bazterketaren arriskuan dauden pertsonen ehunekoa igo egin da Nafarroan azken urteetan. 2015ean %13,9koa zen eta 2024an %18,3ra iritsi da. Euskal Herri osoan datua %15,9koa da. Joera gorakorra da azken urteetan, eta aldea EHrekin handitzen ari da.

Gizarte babes publikoko gastua Nafarroan BPGaren %20,5ekoa izan zen 2019an. Euskal Herriko batez bestekoa handiagoa da: %24.

8. INGURUMENA: ENERGIA, ISURKETAK ETA KLIMA

Berotegi-efektuko gasen isurketek behera egin dute Nafarroan 2005etik. 2023ko datuen arabera, 1.000 biztanleko 6,5 tona CO₂ isuri ziren Nafarroan. Euskal Herriko batez bestekoa zertxobait txikiagoa da.

Energia kontsumoak jaitsiera etengabea izan du azken urteetan. 2010ean Nafarroan kontsumoa 32 ktep/10.000 biztanlekoa zen, eta 2020rako 26,8ra jaitsi da. Euskal Herrian, datuak 26 ktep-etik 21,5era jaitsi dira epe berean.

Berokuntza-graduen metaketa adierazle gisa hartuta, klima aldaketa agerikoa da. 2023an Nafarroan 1.743,6 berokuntza-gradu egunak zenbatu ziren, Euskal Herrian 1.539,1. Joera orokorra beherakorra da azken urteetan.

Nafarroako biztanleek batez ere fruta, barazki, esneki eta haragi kontsumo egonkorra mantendu dute. Produktu ultraprozesatuen kontsumoak ere gora egin du.

Hogei urte bete dira aurten GAINDEGIA sortu zenetik, eta 2020-2021eko mundu mailako osasun krisiak garai berrietara egokitu beharra ekarri digu guri ere. Hala, egokitzen horretan dihardugu joan deneko bi urtean, eta, aurten, zerbait berezia egiteko eta GAINDEGIaren berpiztea profitatzeko, erronka jarri diogu geure buruari Zuzendaritza Batzorde berrian: hogei urte honetan sozioekonomiaren alorrean munduan gertakari benetan garrantzitsuak gauzatu direlarik (gero aipatuko ditudanak), bi hamarka- dotako jarraipen estatistikoaren txostena lantzea. Horri ekin diogu hilabeteotan, eta txosten hori aurki- tuko duzu datozen orrialdeotan, irakurle. Azkeneko atalean, berriz, behako bat egin diegu behategi ho- nen hastapenei, eta bukatzeko erreportaje labur bat prestatu dugu, GAINDEGIA berpiztuak bere buruaz hitz egin dezan, alegia, etorkizun hurbilari eusteko nolako urratsak jarri dituen abian.



1



DEMOGRAFIA

1.1


BIZTANLERIA

Nafarroa Garaiko biztanleria etengabe hazten ari da 2004tik 2025era bitartean. 2004an Nafarroa Garaian 576.346 biztanle ziren eta 2025ean 683.525 biztanle izatera iritsi da. Hau da, 107.179 biztanleko hazkundera 21 urtean (%18,6 inguruko hazkunde orokorra).

Hazkunde horrek epealdi ezberdinak izan ditu ordea.:


- 2004 eta 2008 artean hazkunde nabarmenagoa sumatzen da (%7 baino gehiago lau urtean).
- 2008tik aurrera, hazkundera moteldu egiten da eta 2012-2014 artean egonkortze bat ikus daiteke (biztanleria ia berdintsua), 2008ko krisi ekonomikoaren ondorioak antzematen direlako seguruenik. 2015etik aurrera, berriz, hazkunde apal baina jarraitua berreskuratzen da. Azken bosturtean, batezbeste, 5.000 biztanle irabazi ditu Nafarroa Garaiak.

● Nafarroa Garaiko biztanleria bilakaera. 2004-2025




- Euskal Herri osoaren datuak kontuan hartuta, Euskal Herriak 2004an 2.953.004 biztanle zituen, eta 2025ean 3.248.293 biztanlera iritsi da. Hau da, 295.289 biztanleko hazkundera (%10 inguruko hazkundera). Beraz, Nafarroa Garaiko hazkundera (%18,6) Euskal Herri osoaren batez bestekoa baino handiagoa izan da. Nafarroa Garaia da, gainera, Euskal Herriko hazkunderik handiena izan duen lurraldeetako bat azken bi hamarkadetan

Euskal Herriko eta herrialdeen biztanleria bilakaera. 2004-2025 (IEH 2021)



Zenbaki hauekin, Nafarroa Garaia Euskal Herriko biztanle kopuruaren laurdenetik gertu dago, Euskal Herriko biztanleriaren %21,0 biltzen bait du, hirugarren herrialdea izanik Bizkaiaren (%35,9) eta Gipuzkoaren (%22,5) atzetik, biztanleria kopuruan. Urrun geratzen dira Araba (%10,6), Lapurdi (%8,5) eta Iparraldeko lurralde txikiagoak (Nafarroa Beherea %1,0, Zuberoa %0,4).

Euskal Herriko biztanleriaren banaketa herrialdeka (%). (HEH 2025; IEH 2021)



1.2

BIZTANLERIAREN ADIN EGITURA

Nafarroa Garaiko biztanleriaren egitura (2007-2022) aztertzean, adin-tarteka hauxe azpimarratu daiteke:

0-4 urte bitarteko haurrak gutxitzen ari dira: 2007an 31.501 ziren (gizonak + emakumeak), eta 2022an 27.474ra jaitsi dira.

Gazteen kopurua (5-19 urte) gorabehera batzuk izan ditu, baina orokorrean egonkor mantendu da, azken urteetan goranzko joera apal batekin (adibidez, 10-14 adin tarteko igoera nabarmena 2012tik 2022ra).

Gazte helduak (20-34 urte artean) 2007an askoz gehiago ziren (adibidez, 30-34 urtekoak: 53.037), baina 2022an kopurua nabarmen jaitsi da (30-34 urtekoak: 35.432 inguru).


Erdiko adin-taldeak (35-54 urte artean) handitu egin dira: 2007ko kopuruekin alderatuta, 2022an 40-49 urtekoen eta 50-59 urtekoen kopurua nabarmen handiagoa da.

65 urtetik gorako kolektiboa (bereziki 85+ urtekoena) handitzen ari da modu azkarrean. 85 urtetik gorako emakumeen kopurua 10.266tik (2007) 16.008ra (2022) igo da, hau da, %55 inguruko hazkundera.

Sexuaren arabera: adin aurreratuetan emakumeak gizonak baino gehiago dira, eta alde hori areagotu egiten da 75 urtetik gora.

Laburbilduz Nafarroa Garaian, haur gutxiago eta adineko gehiago daude, ondorioz biztanleriaren zahartze prozesua azkartu egin da eta horren barruan emakumeek biziraupen handiagoa eskuratu dute adin nagusietan azken urteetan gizonek baino.


● Nafarroa Garaiko adin-piramidea, sexuaren arabera. 2007-2022



Alderaketa Euskal Herriarekin eginez gero, Euskal Herri osoan ere antzeko joera dago: haur gutxiago, erdiko adin-taldeak sendotuak, adinekoen hazkundera eta emakumeen nagusitasuna adin aurreratuetan EH osoan ere agerikoa da.

Alderaketa horretan badira zenbait desberdintasun ere ordea. Nafarroa Garaiko haurren proportzioa apur bat handiagoa izan da tarte batzuetan, baina azken urteetan beherantz etorri da Euskal Herriko batez bestekoaren antzera. Eta emakumeen biziraupena Nafarroa Garaian ere Euskal Herri osoan bezala islatzen da, baina proportzioan apur bat txikiagoa da 85+ urtekoen artean.


Euskal Herriko adin-piramidea, sexuaren arabera. 2007-2022



Guzti horrek adinaren batezbestekoa igotzea ekarri du. 2007tik 2022ra, Nafarroa Garaiko batezbesteko adinak igoera etengabea eta jarraitua izan du, 2,5 urte igo da tarte horretan, 40,9tik 43,4ra.

Hala ere, Nafarroa Garaia Euskal Herriko batez besteko adinik gazteeneko lurraldea da 2022an. Gertuen Araba du (45 urte batez beste) eta urrutien Zuberoa (47,5).


Batez besteko adina herrialdeka, 2007-2022



Orain arte deskribatutako joerarekin koherentzian, Nafarroa Garaian, azken hogeitun urteetan, biztanleriaren adin-egitura aldaketa nabarmena izan da. Haur (0-14 urte) eta adinekoen (65 urte eta gehiago) populazioaren bilakaerak zahartze-prozesu progresiboa erakusten du:

0-14 urteko biztanleriaren portzentajea %13,4koa zen 2002an, eta gorabehera txiki batzuekin, 2013-2018an %15,7ko gailurra lortu zuen. Ordutik behera egin du, eta 2022an %14,8an kokatu da.

14 urte azpiko biztanleria proportzioa (%), Euskal Herria eta herrialdeak, 2002-2022




65 urte eta gehiagoko biztanleria, berriz, pixkanaka igo da: 2002ko %18,0tik 2022ko %20,3ra. Hazkunde jarraitu eta moderatua izan da, bereziki 2010etik aurrera.

Horren ondorioz, zahartze-indizea (65 urte eta gehiagoko % vs 0-14 urteko %) 2002ko mailatik gorantz joan da. 2022an Nafarroako zahartze-indizea 137,2 izan da, hau da, 100 haur bakoitzeko 137 adineko daude.

Euskal Herri osoan ere antzeko joerak hautematen dira, baina Nafarroa Garaia zenbait puntu esanguratsutan bereizten da:

- 0-14 urtekoen proportzioa Euskal Herri osoan txikiagoa da (2022an %13,6) Nafarroa Garaian baino (%14,8). Horrek adierazten du Nafarroa Garaian oraindik haurren presentzia handiagoa dagoela.
- 65 urte eta gehiagoko biztanleria Euskal Herrian handiagoa da (2022an %22,8), Nafarroa Garaiko %20,3aren aldean. Hortaz, Euskal Herria osotasunean zaharragoa da.
- Zahartze-indizean alde esanguratsua dago: Euskal Herrian 2022an 167,7 izan da, Nafarroa Garaiko 137,2ren aurrean.

65 urtetik gorako biztanleria proportzioa (%). Euskal Herria eta herrialdeak, 2002-2022




1.3

MIGRAZIOAK

Nafarroa Garaiko eta Euskal Herriko biztanleria jaiolekuaren arabera. 2022

2022ko datuen arabera, Nafarroa Garaian biztanleria %71,1a jaio da Euskal Herrian, eta %28,9 jaio da Euskal Herritik kanpo. Euskal Herrian biztanleria %70,6 jaio da Euskal Herrian, eta %29,4 kanpoan. Beraz, Nafarroa Garaiko biztanleria eta Euskal Herriko biztanleria jaiolekuaren arabera oso antzekoak dira, baina Nafarroa Garaian, bere osotasunean hartuta, proportzio txikiagoa da kanpotik etorritakoa.

● Nafarroa Garaiko eta Euskal Herriko biztanleria jaiolekuaren arabera. 2022




Nafarroa Garaia nabarmentzen da Euskal Herrian hazkunde demografiko handiagoagatik eta biztanleria-egitura gazteagoagatik, nahiz eta zahartze orokorrak aurrera egin.

Nafarroan bizi diren 191.484 pertsona kanpoan jaiotakoak dira. Biztanleriaren egitura demografikoan, Euskal Herritik kanpo jaioak gero eta presentzia handiagoa dute, eta haien jatorri geografikoa oso anitza da.

Hain zuzen ere, Nafarroa Garaian Espainiatik etorritako biztanleek osatzen dute talderik handiena, 79.950 pertsona baitira. Beste jatorri nagusiak Maroko (17.797), Ekuador (14.948) eta Kolonbia (11.293) dira. Horrez gain, Errumania, Peru, Bulgaria eta Bolivia ere presentzia garrantzitsua duten herrialdeak dira Nafarroan. Horrela, Nafarroako gizarteak aniztasun kultural eta etniko aberatsa du.

● Nafarroa Garaiko biztanleria Euskal Herritik kanpo jaioa. 2022



Aniztasun gero eta handiagoa

Euskal Herritik kanpo jaiotako

biztanleen artean Nafarroan.

1.4

JAIOTZAK ETA HERIOTZAK

Azken hamabost urteetan Nafarroa Garaian jaiotzak etengabe gutxitu dira, eta heriotzak, berriz, apurka gora egin dute, egoera pandemiak areagotu zuelarik. Hori dela eta, saldo begetatiboa — jaiotzen eta heriotzen arteko aldea— negatibo bihurtu eta egonkortu da azken urteetan. 2009. urtean 6.844 haur jaio ziren Nafarroan, baina 2023rako kopurua 4.496ra jaitsi da, %34 inguruko beherakada jasoz. Bereziki nabarmena da azken urteetako joera: 2017an 5.746 jaiotza erregistratu ziren, eta 2023an, berriz, ia 1.300 gutxiago.


Heriotzen kasuan, 2009an 5.147 heriotza izan ziren, eta 2023an 5.847. Pandemia garaian, 2020an, heriotzen kopuruak gorakada handia izan zuen, urte horretan 6.662 heriotza erregistratu baitziren. Ondoren, kopuruak apaldu ziren, baina oraindik 2010eko hamarkadako mailetatik gora daude.

Ondorioz, saldo begetatiboa positiboa izatetik negatibo bihurtu da. 2009an 1.697 lagunekoko saldo positiboa zegoen Nafarroa Garaian; 2017an, aldiz, lehen aldiz, saldo negatiboa erregistratu zen (-98). Ordutik, joera hori indartu da: 2020an saldo begetatiboa -1.626koa izan zen, eta 2023an -1.351era iritsi da.


Egoera hau ez da soilik Nafarroako fenomeno. Euskal Herriko datuek ere antzeko joera erakusten dute. Jaiotza-tasa Euskal Herri osoan beheraka doa: 2008an 10,2 jaiotza izan ziren mila biztanleko, eta 2023an 6,4ra jaitsi da. Nafarroa Garaian, 2023ko jaiotza-tasa 6,7koa izan da, oraindik Euskal Herriko batezbestekoa baino apur bat handiagoa.

Bestalde, heriotza-tasek ere goranzko joera erakutsi dute Euskal Herriko lurralde guztietan, pandemiaren inpaktua nabarmen igarota. Nafarroan, heriotza-tasa 2020an 10,1era iritsi zen mila biztanleko, eta 2023an 8,7an kokatu da.


Jaiotzak eta heriotzak. Nafarroa Garaia. 2009-2023



● Jaiotzak mila biztanleko. Euskal Herria eta herrialdeak. 2000-2023



● Heriotzak mila biztanleko. Euskal Herria eta herrialdeak. 2000-2023



Nafarroa Garaia demografikoki hazkunde leunean dago azken bi hamarkadetan, batez ere lehenengo urteetako hazkunde bizkorren ostean, eta 2020ko hamarkadan erritmo egonkor batean mantentzen da.

Nafarroa Garaia Euskal Herriko biztanle kopuruaren laurdenetik gertu dago, Euskal Herriko biztanleriaren %21,0 biltzen bait du, hirugarren herrialdea izanik Bizkaiaren (%35,9) eta Gipuzkoaren (%22,5) atzetik, biztanleria kopuruan.

Adin eta sexu egiturari erreparatuta Nafarroa Garaian, haur gutxiago eta adineko gehiago daude, ondorioz biztanleriaren zahartze prozesua azkartu egin da eta horren barruan emakumeek biziraupen handiagoa eskuratu dute adin nagusietan azken urteetan gizonek baino. Haurren proportzioa ez da jaitsi dramatikorik, baina adinekoen portzentajea azkarrago igo da.

Zahartze-indizea (65 urte eta gehiagokoen % vs 0-14 urtekoen %) 2002ko mailatik gorantz joan da. 2022an Nafarroako zahartze-indizea 137,2 izan da, hau da, 100 haur bakoitzeko 137 adineko daude.

Nafarroa Garaia Euskal Herriko batez bestekoa baino gazteagoa da gaur egun. Hala ere, Nafarroa Garaiko datuak erakusten dute zahartze-prozesu berbera pairatzen duela, erritmo zertxobait motelagoan. Euskal Herri osoan, zahartze-maila handiagoa da, eta haur kopurua txikiagoa.

Nafarroa Garaiko eta Euskal Herriko biztanleen jaiolekuaren proportzioak oso antzekoak dira: Nafarroan biztanleriaren %71,1 Euskal Herrian jaioa da, eta Euskal Herri osoan %70,6.

Kanpoan jaio diren pertsonen kopurua nabarmena da Nafarroan: 2022an, 191.484 pertsona ziren Nafarroatik kanpo jaiotakoak (%28,9). Gehienak Espainiatik datoz, baina Latinoamerika, Afrika eta Ekialdeko Europako jatorri aniztasuna ere garrantzitsua da. Horrela, aniztasun kultural eta geografikoa gero eta handiagoa da Nafarroan. Espainiatik etorritakoen ondoren, Maroko, Ekuador eta Kolonbia nabarmentzen dira.

Nafarroa Garaian, jaiotza kopurua azken hamarkadan nabarmen jaitsi da eta, heriotzen igoerarekin batera, saldo begetatiboa modu iraunkorrean negatibo bihurtu da.



EKONOMIA

2.1


BPG: URTE ARTEKO HAZKUNDEA

Nafarroa Garaiko hazkunde ekonomikoa (2000-2023): hazkunde sendoa, ziklo ekonomikoen eraginpean

2000. urtetik 2023ra bitartean, Nafarroa Garaiko ekonomia bilakaera esanguratsua izan du, hazkunde etengabearekin baina krisi ekonomikoen eta pandemia garaiko atzerakadekin markatua. Urte arteko Barne Produktu Gordinaren (BPG) hazkunde tasa positiboa izan zen ia urtero, salbuespen nabarmenak 2009an (-%3,3), 2012an (-%3,8), eta 2020an (-%9,1) izan zirelarik, azken hau COVID-19aren eraginez sortutako krisi globalaren testuinguruan.

Bestalde, Nafarroako BPG biztanlekoak gora egin du nabarmen 2000ko 20.300 eurotik 2023ko 37.255 eurora. Hazkunde hori ia bikoiztu egin da 23 urteko epean, eta bereziki azpimarragarria da 2020-2023 bitarteko hazkunde: 28.600 eurotik 37.255 eurora igaro da, urteko %7-11 bitarteko hazkunde tasarekin.

● BPG egungo merkatu prezioetan (€ biztanleko), Urte arteko BPG hazkunde tasa eta BPG EAP (Erosteko Ahalmenaren Parekotasuna) biztanleko (€) . Nafarroa Garaia 2000-2023



2.2

BPGa BIZTANLEKO


Erosteke Ahalmenaren Parekotasunez (EAP) egokitutako BPG biztanlekoak ere bilakaera argia erakusten du: 2000ko 23.100 eurotik 2023ko 41.300 eurora igo da. Horrek iradokitzen du hazkunde nominalaz gain, Nafarroako biztanleen kontsumo-ahalmena ere areagotu dela, nahiz eta 2009 eta 2020an atzerapenak jasan zituen (30.000 € eta 30.500 € hurrenez hurren).

Nafarroa Garaia eta Euskal Herria alderatuta, EAPen arabera egokitutako BPG biztanlekoari dagokionez, Nafarroa Garaia Euskal Herriko batez bestekoaren gainetik egon da seriearen hasieran eta bereziki bukaeran. Hala ere, 2004tik oso balio antzekoak mantendu dituzte, adibidez, 2004an, Nafarroa Garaia 26.800 €-ra iritsi zen, Euskal Herriko batez bestekoa 25.777 € zela edo 2009an, krisiaren erdian, Nafarroa Garaia 30.000 €-tan zegoen, Euskal Herria berriz 29.870 €-tan.

2023an, aldeak nabarmen egin du gora ordea, Nafarroak 41.300 €-ko EAP BPG biztanleko maila lortu du, Euskal Herri osoak 39.089 €-koa, ia 2.200 euroko aldearekin. Hau kontuan hartuta, Nafarroa Garaiak errendimendu ekonomiko handiagoa izan du Euskal Herriaren batez bestekoarekiko, 2021erarteko joera apurtuz.

Nafarroak Euskal Herri osoa
gainditzen du BPG per capita
EAPn 2023an.

● BPG EAP (Erosteke Ahalmenaren Parekotasuna) biztanleko (€) . Nafarroa Garaia eta Euskal Herria, 2000-2023



2.3

BALIO ERANTSIAREN EGITURA

Ekonomiaren sektore-egituraren bilakaera Nafarroa Garaian (2000–2023): Zerbitzuen gorakada, industriaren egonkortasuna eta eraikuntzaren gainbehera

2000 eta 2023 bitartean, Nafarroa Garaiko ekonomia-sektoreen egiturak aldaketa esanguratsuak jasan ditu, trantsizio industrialaren eta zerbitzuen hazkundearen testuinguruan. Balio Erantsi Gordinaren ehunekotan adierazitako sektore-pisuak aldatu egin dira, batez ere industria, eraikuntza eta zerbitzu aurreratuen artean.

1. Lehen sektorea: Egonkortasuna beheranzko joeraren testuinguruan

Nekazaritza, basogintza eta arrantza sektoreak ehuneko txikia izan du ekonomian, eta 2000ko %4,0tik 2023ko %3,8ra jaitsi da. Nahiz eta aldaketak txikiak izan, oro har, lehen sektorearen pisua egonkorra izan da, %3,5-%4 artean mantenduz, salbuespenik gabe.

2. Industria (eraikuntza barne hartu gabe): pisu garrantzitsua, baina zertxobait beherantz

Industriak —historikoki Nafarroako ekonomiaren oinarria— %32,5etik (2000) %29,9ra (2023) egin du behera. Nahiz eta beherakada moderatua izan, joera argia da: sektorearen pisua apaldu da 2008ko krisiaren ondoren eta egonkortu egin da azken hamarkadan %30 inguruan. 2022an berriz, igoera apal bat (%31,9) jaso zen, suspertze zantzuak agertuz.

3. Eraikuntza: burbuilaren eragina eta krisiaren ondorioak

Eraikuntzaren sektoreak aldaketa nabarmenak jasan ditu. 2000an %9,3 zen, eta 2006an gailurra jo zuen %11,2rekin. Ondoren, 2008ko finantza-krisiaren ondorioz, beherakada etengabea jasan zuen, 2013an %5,8ra jaitsiz eta ondoren maila apal horretan egonkortuz. 2023an, sektoreak %5,6ko pisua zuen, iraganean baino eragin txikiagoa izanik ekonomia orokorrean.

4. Merkataritza, garraioa eta ostalaritza: egonkortasuna eta susperraldia

Handizkako eta txikizkako merkataritza, garraioa, ostalaritza eta informazio-komunikazio sektoreak %23,2ko ekarpena zuten 2000an eta 2023an %21,4ra jaitsi dira, nahiz eta aldaketa ez den handia. Pandemia garaian (2020), beherakada nabarmena izan zen (%19,0), baina susperraldia azkarra izan da, 2021etik aurrera berriz ere %21 ingurura bueltatuz.

5. Zerbitzu aurreratuak eta profesionalak: gorakada esanguratsua

Finantza-jarduerak, higiezinaren kudeaketa eta jarduera profesional, zientifiko eta teknikoek gorakada nabarmena izan dute: 2000ko %11,8tik 2023ko %19,1era. Igoera hori hazkunde ekonomiko modernoaren adierazgarri da, ekonomia aurreratuetan gertatzen den bezala, ezagutzen oinarritutako jardueren pisuak gora egiten baitu.

6. Zerbitzu publikoak eta komunitarioak: pisu egonkorra eta handia

Administrazio publikoa, hezkuntza eta osasunaren sektoreak %19,2ko pisua zuten 2000an eta %20,2koa 2023an. Aldaketa moderatua izan da, baina gizarte-ongizatearen mantentze-lanean sektore hauen estrategikotasuna agerikoa da, krisi finantzieroaren edo pandemiaren testuinguruan ikusten den bezala, non bere pisua igo egiten den.

Nafarroa Garaiko eta Euskal Herriko egitura ekonomikoa alderatuta, 2000–2022 epealdian, honakoa ikus daiteke:

1. Nekazaritza, basogintza eta arrantza: Nafarroa Garaiko lehen sektorearen pisu handiagoa

Nafarroa Garaian, lehen sektoreak pisu txikia baina sendoagoa izan du Euskal Herriarekin alderatuta. Nafarroan sektore honek %4 inguruko ekarpena izan du urtez urte, Euskal Herrian berriz %2,5etik %1,3ra jaitsi da epe berean.

2. Industria (eraikuntza izan gabe): Nafarroan handiagoa, baina joera berdintsua

Industria sektorearen ekarpena apaltzen joan da bi lurraldeetan, baina Nafarroan handiagoa izan da beti. 2000an, Nafarroan %32,5 zen sektorearen pisua eta 2023an %29,9ra jaitsi da. Euskal Herrian, berriz, %30,6tik %25,7ra (2022an) jaitsi da.

3. Eraikuntza: antzeko dinamika, baina Euskal Herrian zertxobait handiagoa azken urteetan

2000ko hamarkadan eraikuntza sektoreak hazkunde nabarmena izan zuen bi eremuetan, 2006 inguruan goia jo zuelarik. Gero krisi ekonomikoaren eraginez beherakada etengabea jasan zuen. Azken urteetan, sektorea egonkortu da %5-6 inguruan Nafarroan eta %6-7 artean Euskal Herrian.

4. Merkataritza, garraioa, ostalaritza eta IKT: Euskal Herrian pisu handiagoa

Zerbitzu hauek Nafarroan %23,2tik %21,4ra jaitsi dira, eta Euskal Herrian, berriz, %24,1etik %22,6ra. Bi eremuetan beherakada antzekoa izan da, baina hasieratik Euskal Herrian sektore honek pisu handiagoa izan du.

5. Zerbitzu aurreratuak eta profesionalak: hazkunde nabarmena bietan, handiagoa Euskal Herrian


Finantza eta zerbitzu profesionalek %11,8tik %19,1ra egin dute gora Nafarroan, eta %15,0etik %22,5era Euskal Herrian. Bi eremuetan, hazkunde oso esanguratsua izan da sektore honetan, baina Euskal Herriak aurrerapen handiagoa erakutsi du.

6. Zerbitzu publikoak eta komunitarioak: pisu egonkorra, handiagoa Euskal Herrian


Administrazio publikoa, hezkuntza eta osasuna bezalako sektoreek %19,2tik %20,2ra egin dute gora Nafarroan. Euskal Herrian, sektore honek %19,6tik %21,7ra igo da. Beraz, bi kasuetan sektore hau egonkorra da, baina Euskal Herrian pisu handiagoa

Nafarroak egitura ekonomiko
industrialagoa mantentzen du Euskal
Herriarekin alderatuta, eta zerbitzu
aurreratuek pisua irabazten dute bi
lurraldeetan.

● Balio erantsi gordinaren egitura jardura adarren arabera (%). Nafarroa Garaia 2000-2023



● Balio erantsi gordinaren egitura jarduera adarren arabera (%). Euskal Herria 2000-2022



2.4

ONDASUN ETA ZERBITZUEN ESPORTAZIOAK

Esportazioen bilakaera Nafarroa Garaian (2016–2022): sendotasuna eta dinamismoa nazioarteko merkatuetan

Nafarroa Garaiko esportazioek hazkunde sendoa eta egonkortasuna erakutsi dute 2016 eta 2022 urteen artean, nazioarteko testuinguru aldakor batean. Automobilgintza, makina-erreminta eta osagai industrialak bezalako sektore esportatzaileek eskualdearen ekonomia irekiaren adierazle argia dira.

Esportazioen bolumena: hazkunde sendo eta jarraitua

2016. urtean Nafarroa Garaiko esportazioen balioa 14.252 milioi euro zen. Urtez urteko joerak gora egin du, eta 2022an esportazio-bolumena 20.561 milioi eurora iritsi da, hau da, %44,3ko hazkunde metatua zazpi urtetan.


Urte horietan, 2019ko emaitza nabarmentzen da, esportazioen hazkundea %12ra iritsi baitzen, eta bolumena 18.073 milioira. Pandemiak eragindako 2020ko jaitsiera arinagoa izan zen (%–8,3) Euskal Herriarekin alderatuta, eta horrek Nafarroaren erresilientzia ekonomikoa azpimarratzen du. 2022an, berriz, suspertze indartsua izan zuen, urtebetean %16,5eko igoera lortuz, esportazioen errekorra hautsiz.

Euskal Herriarekin alderaketan, Nafarroa Garaiko esportazioek Euskal Herri osoaren esportazioetan duten pisua %28 eta %32 artean mantendu da 2016–2022 epean, tamaina ekonomiko txikiagoa izan arren.

Alderaketa nagusiak eginez gero, zenbaki batzuk nabarmentzen dira:

- Euskal Herriak 2022an 72.143 milioi € esportatu zituen; Nafarroak, 20.561 milioi €.
- Hazkunde metatua 2016–2022 bitartean, Nafarroa Garaiak +44,3%, Euskal Herriak +42,3%
- 2020ko beherakada Nafarroan txikiagoa izan zen (%–8,3) Euskal Herrian baino (%–13,6)

● Nafarroa Garaiko eta Euskal Herriko esportazioak. Bolumena (Milioi €) eta hazkundera (%). 2016-2022



Nafarroako esportazioen norabidea (2016–2022): mendebaldeko Europa eta Espainia ardatz estrategiko gisa

2016 eta 2022 artean, Nafarroa Garaiko esportazioen helmuga geografikoetan egonkortasuna eta kontzentrazioa nabarmendu dira. Lurralde esportatzaile gisa, Nafarroa Espainia eta Mendebaldeko Europaren menpe dago, nahiz eta nazioarteko dibertsifikazioaren lehen zantzuak ere ikus daitezkeen.

Espainia da Nafarroako esportazioen helburu nagusia, eta are gehiago bilakatu da azken urteetan. 2016an esportazioen %40,8 Espainiara bideratzen zen; 2022an, kopuru hori %47,6 izatera iritsi da. Hau da, zazpi urtetan ia 7 puntu egin du gora.

Frantzia eta Alemania dira Nafarroaren bigarren eta hirugarren helmuga nagusiak. Frantzia %10 inguruan mantendu da epe osoan (2022an %9,9), egonkortasun handiarekin eta Alemania %8–9 artean egon da; 2022an, esportazioen %8 osatu zuen.

Beste herrialde europarrak egonkor mantentzen dira, baina pisu txikiagoa dute. Italia, Portugal eta Erresuma Batua kasu (Italia %4,7, Portugal %2,9 eta Erresuma Batua %2,9).

Bestalde, Polonia, Belgika eta Herbehereak moduko herrialdeek %1–1,6 arteko maila mantentzen dute. Txekiar Errepublika ere %1,2 inguruan dago.

Ameriketako Estatu Batuak dira esportazioen %2–4 arteanosatzen duen helmuga ez-europar nagusia. Bereziki nabarmentzen da 2021ean %4,2ra iritsi izana, nahiz eta 2022an jaitsi (%2,3), pandemiaren ondorengo esportazio fluxuen aldaketak agerian utziz.


“Beste” herrialdeen zatia 2016ko %21,8tik 2022ko %16,3ra jaitsi da, hots, 5,5 puntu gutxiago. Horrek adierazten du Nafarroako esportazioen egitura gero eta kontzentratuagoa dela.

Euskal Herriarekin alderaketa: dibertsifikazio handiagoa


Euskal Herriko esportazioek, oro har, dibertsifikazio geografiko handiagoa erakusten dute. Espainiarako esportazioen proportzioa %36–38 artean mantendu da (Nafarroan baino 9–11 puntu gutxiago) eta “Beste” herrialdeen zatia ere handiagoa da (%19,7 2022an). AEBek eta Herbehereek EHn duten pisua Nafarroakoa baino altuagoa da.

Honek erakusten du Euskal Herri osoak merkatu askotarikoagoak dituela, eta nazioarteko lehia-
aukera zabalagoa duela.

Nafarroa Garaiko esportazioak, nora. Bolumena %. 2016-2022



(Hego) Euskal Herriko esportazioak, nora. Bolumena %. 2016-2022



Espainia eta Europa, Nafarroako esportazioen ardatz 2022an

2022an, Nafarroa Garaiko esportazioek Espainia izan zuten helmuga nagusia: 9.791 milioi euro, lehen 50 herrialdeetako esportazio guztien ia erdia. Frantzia (2.037 milioi) eta Alemania (1.654 milioi) jarraitu zuten, eta ondoren Italia, Portugal eta Erresuma Batua. Europako herrialdeak dira, beraz, Nafarroako bezero nagusiak.


Ameriketako Estatu Batuak (480 milioi) eta Mexiko (158 milioi) bezalako herrialdeek erakusten dute Nafarroa nazioarteko merkatuetara irekita dagoela, baina oraindik bolumen txikiagoekin. Asiar eta Afrikako herrialdeen presentzia, nahiz eta esanguratsua izan (Txina, Hegoafrika, India, etab.), oraindik bigarren mailakoa da.

Hego Euskal Herria: esportazio gehiago eta dibertsifikazio handiagoa


Hego Euskal Herri osoan, esportazio-bolumenak handiagoak dira, normala denez. Espainiara 25.196 milioi euro esportatu ziren, eta horri gehitu behar zaizkio Frantzia (7.053 milioi), Alemania (6.677 milioi) edo AEB (2.780 milioi) bezalako herrialdeetara egindako salmentak. Horrek erakusten du Hego Euskal Herriak esportazioetan dibertsifikazio geografiko handiagoa duela.

Bai Nafarroa Garaiaren bai Hego Euskal Herria bere osotasunean hartuta, bi kasuetan Espainia eta Europa Mendebaldea dira merkatu nagusiak.

● Nafarroa Garaiko esportazioak. Bolumena. 2022



● Hego Euskal Herriko esportazioak. Bolumena. 2022



2.5

ONDASUN ETA ZERBITZUEN INPORTAZIOAK

Inportazioen bilakaera Nafarroa Garaian eta Euskal Herrian (2016–2022): dinamismo industrialaren eta merkatu globalen menpekotasunaren adierazle

2016tik 2022ra, Nafarroa Garaiko inportazioek hazkunde nabarmena izan dute, eta 2022an serieko kopururik altuenak erregistratu dira. Euskal Herri osoaren joerarekin alderatuta, Nafarroaren kasuan inportazioen gorakada bizkorragoa eta indartsuagoa izan da azken urteotan, batez ere pandemia osteko testuinguruan.

2016an, Nafarroak 9.244 milioi € inportatu zituen; 2022an, kopuru hori 17.012 milioi €-ra igo da. Hau da, %84ko igoera zazpi urtean. Hazkunde handiena 2022an gertatu zen: urte bakarrean, inportazioak %42,0 hazi ziren. 2020ko pandemiak beherakada ekarri zuen (%-10,8), baina errebote-efektua handia izan zen 2021ean (%+17,1) eta are nabarmenagoa 2022an.


Hazkunde hori, akaso, industria-eskaeraren eta kontsumo-ereduen berreskurapenarekin eta petrolio, energia eta lehengai industrialen prezioen igoerarekin lotu daiteke.

Euskal Herria: joera leunagoa, baina antzekoa

Euskal Herriko inportazioak 40.232 milioi €-tik (2016) 66.730 milioi €-ra (2022) igo dira, hau da, %+65,9ko hazkundea zazpi urtean. 2022ko hazkundea %23,6 izan zen, Nafarroakoa baino askoz txikiagoa, baina oraindik nabarmena. 2020an jaitsiera izan zen (%-9,1), baina berreskurapena 2021ean (%+18,9) eta 2022an (%+23,6) gertatu zen, Nafarroakoaren antzeko erritmoan baina intentsitate txikiagoarekin.

Beraz, Nafarroa eta Euskal Herria norabide berean, baina erritmo desberdinean mugitu direla esan daiteke. Nafarroa Garaiak inportazioetan joera oldarkorragoa erakutsi du, hazkunde tasak Euskal Herrikoak baino nabarmenagoak izanik zenbait urtetan. Euskal Herriko inportazioak orekatuagoak izan dira, baina pandemiaren aurreko eta ondorengo gorabeherak ere antzekoak izan dira. Alde horiek, ziurrenik, Euskal Herriak, eskala handiagoko eta dibertsifikatuagoko ekonomiaren ezaugarria izatearen ondorio da, horrek inportazioaren eboluzioa orekatzen laguntzen baitu.

● Nafarroa Garaiko eta Euskal Herriko inportazioak. Bolumena (Milioi €) eta hazkundea (%). 2016-2022



Inportazioen hazkunde nabarmena Nafarroan eta Euskal Herrian (2016–2022).


Inportazioen jatorria Nafarroa Garaian eta Euskal Herrian (2016–2022): Espainiaren mendekotasuna eta dibertsifikazio-mugak.

Nafarroa Garaian, 2016tik 2022ra bitarteko aldirian, inportazioen jatorriak joera sendoa erakutsi du Espainiarekin duen mendekotasun komertzialari dagokionez. Izan ere, 2016an Nafarroako inportazioen %50,9 Espainiatik zetorren, eta kopuru hori gorantz joan da etengabe: 2022an %56,7a iritsi zen, hots, hamarkada erdian ia 6 puntu gehiago. Hau da, Nafarroaren inportazioen erdiak baino gehiago Espainiatik datoz, eta mendekotasun hori areagotu egin da denborarekin.


Beste jatorri nagusi batzuk, hala nola Alemania eta Frantzia, nabarmen jaitsi dira. Alemaniaren pisua %14,7tik (2016) %10,0ra (2022) jaitsi da, eta Frantziarena %6,0tik %4,6ra. Txina, berriz, goranzko bidean da: 2016an %2,7 zen eta 2022an %3,7, nahiz eta oraindik beste herrialde batzuen atzetik dagoen. Estatu Batuak eta Brasil bezalako herrialdeek parte txikia dute Nafarroako inportazioetan, eta ez da hazkunde nabarmenik ikusgai.

Euskal Herrian, berriz, joerak desberdinak dira. Espainiak inportazio guztien %47,2 ematen zuen 2016an, baina 2022an %41,5era jaitsi da, kontrako norabidean. Hau da, Euskal Herriak dibertsifikazio handiagoa eta Espainiaren mendekotasun txikiagoa erakusten du azken urteetan. Herrialde askoren pisua handitu da, nabarmenena Estatu Batuen (%1,1etik, %3,6ra) eta Brasilena (%0,4tik, %2,5era). Gainera, Euskal Herriko inportazioen multzoak heterogeneotasun handiagoa erakusten du: “Beste” izenpean sailkatutako herrialdeen pisua %23,4tik %25,5era igo da, eta Asia, Amerika eta Europa ekialdeko herrialdeekin harremanak handitu dira. Nafarroan, “Beste” multzoa txikiagoa eta egonkorra da (%17 inguruan).

● Nafarroa Garaiko inportazioak, nondik. Bolumena %. 2016-2022



● (Hego) Euskal Herriko inportazioak, nondik. Bolumena %. 2016-2022



Espainia eta Alemania, Nafarroa Garaiko hornitzaile nagusiak 2022an

2022an, Nafarroa Garaiko inportazioen zati nagusia Espainiatik iritsi zen: 9.651 milioi euro, etorritako guztizkoaren ia erdia. Bigarren postuan Alemania dago (1.703 milioi), eta atzetik Frantzia (776 milioi) eta Txekiar Errepublika (686 milioi). Datu horiek erakusten dute hornikuntza-kate nagusiak inguruko herrialde industrializatuetan eta Europako ekialdeko ekoizpen-guneetan oinarritzen direla.

Txina, AEBak, India edo Japonia bezalako herrialdeek ere leku nabarmena dute Nafarroako inportazioetan, teknologia, osagai industrial eta lehengai estrategikoen iturri gisa. Afrikako eta Latinoamerikako herrialde batzuk (Maroko, Brasil, Peru) agertzen dira, baina bolumen txikiagoarekin.


Hego Euskal Herria: inportazio bolumen handiagoa eta jatorri geografiko zabalagoa

Hego Euskal Herrian, inportazioen bolumen osoa askoz handiagoa da: 26.287 milioi euro Espainiatik soilik, hau da, Nafarroaren ia hirukoitza. Alemaniatik (5.473 milioi), Frantziatik (3.392 milioi), eta Txinatik (2.799 milioi) iritsitako salgaiak ere oso esanguratsuak dira, eta AEBek (2.304 milioi), Herbehereek, Brasil, Italia eta Erresuma Batuak osatzen dute lehen postuen multzoa.


Horrek erakusten du Hego Euskal Herriak inportazioen jatorri anitzagoa duela, eta mundu mailako sare komertzial zabalagoan dabilela. Txekiar Errepublika, Polonia, Hungaria eta India bezalako herrialdeek ere pisu handia dute, eta dibertsifikazio horrek ekoizpen-kate konplexuago baten erakusgarri da.

Horrela, bi lurraldeetan Espainia da hornitzaile nagusia, baina Hego Euskal Herrian inportazioak nabarmen handiagoak dira eta jatorri geografikoki zabalagoak dituzte. Nafarroaren kasuan, Europako industri guneek eta Espainiak osatzen dute oinarri nagusia, eta nazioarteko irekitzea oraindik maila apalagoan dago. Hego Euskal Herrian, aldiz, ekonomia irekiago baten isla da inportazio-mapa: hornikuntza estrategikoa hainbat kontinente eta sektoretatik dator.

● Nafarroa Garaiko inportazioak. Bolumena. 2022



● Hego Euskal Herriko inportazioak. Bolumena. 2022



2.6

MERKATARITZA-BALANTZA

Merkataritza Fluxuen Bilakaera Nafarroa Garaian (2016–2022)

1. Esportazioaren gorakada sendoa Nafarroan

2016 eta 2022 bitartean, Nafarroa Garaiko esportazioak etengabe hazi dira bai Espainiako Estatuko erkidegoetara, bai nazioarteko merkatuetara ere. Zehazki, Espainiara egindako esportazioak %68 hazi dira zazpi urtetan (2016ko 5.815 milioi eurotik 2022ko 9.791 milioira). Era berean, beste herrialdeetara %27 igo dira epe berean (8.437 milioitik 10.769 milioira).

2. Inportazioen igoera nabarmena eta 2022ko inflexio-puntua

Esportazioen gorakadarekin batera, Nafarroako inportazioak ere nabarmen hazi dira, bai Espainiatik bai beste herrialdeetatik. Espainiatik egindako inportazioak ia bikoiztu egin dira: 2016ko 4.701 milioi eurotik 2022ko 9.651 milioira. Bestalde, gainontzeko inportazioak 4.542 milioitik 7.360 milioira igo dira. 2022an, bereziki, Espainiatik egindako inportazioen igoera oso bortitza da (%55 urte bakarrean), eta horrek ekarri du Espainiarekin izan den balantza komertzial positiboaren ia desagertzea, urte horretan +139 milioi euroraino murriztuz, aurreko urteetako +1.000 eta +2.000 milioiko saldoekin alderatuta.

3. Balantza komertzialaren eboluzioa: Oreka gero eta ahulagoa

Urte gehienetan, Nafarroak balantza komertzial positiboa mantendu du, hau da, esportazioak inportazioak baino handiagoak izan dira. Hala ere, joera orokorra da oreka hori ahultzen joan dela. Espainiarekin, 2022an ia orekatik behera pasatu da; eta nazioarteko harremanetan, nahiz eta saldo positiboa mantendu, superabit komertziala zertxobait gutxitu da: 2016ko 3.894 milioitik 2022ko 3.408 milioira.


4. Euskal Herriarekin konparazioa: tamaina handiagoa, baina ahultasun antzekoak

Hego Euskal Herria (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia) osorik hartuta, datuak handiagoak dira kopurutan, baina joerak antzekoak dira Nafarroakoekin.


Espainiarekin izan duten merkataritza harremanak defizitarioak izan dira urte guztietan, eta 2020 eta 2021an, pandemia betean, -3,9 milioi euroko galera izan zuten urte bakoitzean. 2022an, nahiz eta esportazioak handitu, inportazioen igoerak defizita mantendu zuen (-1.091 milioi euro).

Kanpo merkatuetan superabit komertziala izan da, baina joera beheranzkoa da: 2016an 9,9 milioiko superabitarekin hasi eta 2022an 6,4 milioira jaitsi da. Azken hori Nafarroarenaren antzeko bilakaera da, proportzioan.

● Nafarroa Garaiko esportazio, inportazio eta balantza komertziala, Espainiarekin eta gainontzeko Estatuekin. 2016-2022



● (Hego) Euskal Herriko esportazio, inportazio eta balantza komertziala, Espainiarekin eta gainontzeko Estatuekin. 2016-2022



2.7

BERRIKUNTZA JARDUERAK

I+G Inbertsioaren Bilakaera Nafarroan eta Euskal Herrian (2000–2021)

1. Nafarroako I+G inbertsioaren gorakada eta egonkortzea

Nafarroa Garaian I+G inbertsioa (BPGaren % gisa neurtua) 2000. urteko %0,9tik 2008ko %2,2ra igo zen, hau da, 8 urtean ia bikoiztu egin zen. Muga horretatik aurrera, ordea, inbertsioa ez da gehiago handitu, eta 2021ean %1,9an kokatu da, 2008ko maximoaren azpitik.

Horrek bi aro desberdin erakusten ditu:

- 2000–2008: hazkunde fasea, non Nafarroak estrategia aktiboa garatu zuen berrikuntza industrial eta zientifikoa sustatzeko.
- 2009–2021: egonkortze edo geldialdi fasea, non krisi ekonomikoak eta finantza murrizketek eragina izan duten, nahiz eta berriro 2019tik %1,9ra itzuli den, pandemiaren testuinguruan.


2. Euskal Herriko joera: egonkortasun handiagoa eta abantaila estrukturala

Euskal Herriko I+G inbertsioa, etengabe hazi da 2000ko %1,1etik 2021eko %2,2ra. Nabarmen da 2008an ere %2,1 lortu zuela, eta gero ere gutxi jaitsi eta berriz igo dela, azken urteetan %2,2ko balio historiko maximoa lortuz 2021ean.

Euskal Herriko gorabeherak arinagoak izan dira, eta maila altuagoa mantendu du Nafarroarekin alderatuta urte gehienetan. Bereziki:

- 2012–2018 artean, Nafarroako inbertsioa %1,7–1,8 artean gelditu zen, baina Euskal Herrian %1,9–2,1 arteko tartea mantendu zen.
- 2021ean, 0,3 puntuko aldea dago Nafarroaren kaltetan.

I+G Inbertsioa (BPGaren %). Nafarroa Garaia eta Euskal Herria, 2000–2021



Teknologia aurreratuko sektoreetan enpleguaren eboluzioa nafarroan eta euskal herrian (2012–2023):

1. Nafarroako joera: gorabeheratsua baina hobetzen

Nafarroa Garaian, teknologia aurreratuko sektoreetan lan egiten dutenen proportzioak 2012ko %2,1etik 2023ko %3,0ra egin du gora. Hala ere, eboluzio hori ez da lineala eta gorabeheratsua izan da.

- 2012–2016: gorabeherak eta gainbehera — %2,6ra igo zen 2014an, baina 2016rako %2,1era jaitsi zen berriro.
- 2017–2019: susperraldi moderatua — %1,8ko minimotik (2017) %3,1era igo zen (2019).
- 2020–2023: pandemiaren ondorioak eta egonkortzea — %2,9ra jaitsi zen 2020an, baina 2023an berriro %3,0era igo da, balio gorenetik gertu.


2. Euskal Herriko joera: hazkunde etengabe eta nabarmenagoa

Euskal Herriak, berriz, teknologia aurreratuko enpleguan posizio aurreratuagoa izan du etengabe, eta hazkunde egonkorra erakutsi du. 2012ko %3,5etik 2023ko %4,5era igo da — urte batzuetan %5era hurbilduta (2022ko %4,9). Bereziki nabarmentzekoa da 2019tik 2022ra bitarteko jauzia: %3,6tik %4,9ra. 2023an apur bat jaitsi den arren (%4,5), ehuneko altuak mantentzen dira.

3. Aldea bi lurraldeen artean: alde estrukturala mantentzen da

Urte gehienetan, Euskal Herriak Nafarroa baino %1–1,5 puntu handiagoa izan du teknologia aurreratuko sektoreetako enpleguaren ehunekoan.

● Teknologia aurreratuko sektoreak. Guztizko enpleguaren ehunekoa. Nafarroa Garaia eta Euskal Herria, 2012-2023



2.8

LANAREN PRODUKTIBITATEA

Produktibitatea, KFEG, soldata eta errenta Nafarroa Garaian eta Euskal Herrian (2000–2023)

1. Produktibitate nominala: etenik gabeko hazkundera, diferentziak txikituz

Lanaren produktibitate nominalak (langileko BPG, €tan) etengabe egin du gora bi eremuetan. Hala ere, Euskal Herriak beti gainditu badu ere Nafarroa Garaia, alde hori txikitu (tarteka berdindu) da: 2000an, Euskal Herrian 43.647 € eta Nafarroa Garaian 39.800 € ziren, gutxi gora-behera 3.800 €-ko aldea. 2023an, 81.680 € eta 78.000 € hurrenez hurren, 3.700 €-ko aldea. Alde absolutua txikitu da, baina are gehiago ehuneko diferentzia.

2. Produktibitate erreala (lanordu bakoitzeko, 2015 oinarri): konbergentzia partziala

Zenbaki errealean (inflazioa kontuan hartuta), bi lurraldeak oso antzekoak dira 2023an, nahiz eta 2000. Urtean ez zen horrela. 2000an, Euskal Herrian 80,2 zen bitartean, Nafarroa Garaian 76,8 zen. 2023an, berriz, 104,7 eta 103,2 hurrenez hurren, ia berdinketa.

Nafarroak bere produktibitate errearen errendimendua hobetu du, eta 2017tik aurrera tarteka Euskal Herri osoa gainditu du urte batzuetan (adibidez, 2017 eta 2018an).

3. Kapital Finkoaren Eraketa Gordina (KFEG): inbertsio gaitasuna eta dinamismoa

KFEG BPGaren portzentaje gisa neurtuta, Nafarroa nabarmen gainetik egon da 2000–2008 artean. Finantza-krisiaren ondoren, inbertsioaren portzentajea jaitsi egin zen, baina berriro suspertu da azken urteetan. Euskal Herriarekin alderatuta, 2007an, Nafarroan %35,1 zen eta Euskal Herrian %25,2. 2022an, %22,5 eta %19,9 hurrenez hurren. Nafarroak, beraz, inbertsio eredu sendagoa mantendu du, batez ere lehen hamarkadan, eta horrek lagundu dezake produktibitatearen hazkundera.


4. Soldata eta orduko soldata: hazkundera, baina arrakala mantentzen da

Langileko eta orduko soldaten hazkundera positiboa izan da bietan, baina Euskal Herriak abantaila mantentzen du. Langileko soldata 2023an 43.949 € da Euskal Herrian eta 41.500 € Nafarroa Garaian. Lanordu bakoitzeko soldata berriz, 28,5 € Euskal Herrian eta 26,2 € Nafarroa Garaian. Nafarroak 2000–2008an erritmo bizian igo zituen soldatak, baina 2010etik aurrera egonkortasun handiagoa ageri du, eta berreskurapena motelagoa izan da.


5. Errenta erabilgarria (familiaren diru-sarrera): alde handituz doa

Biztanleko errenta erabilgarria izan daiteke azken kontsumoaren eta ongizate mailaren proxy bat. Hemen ere, Euskal Herria aurretik doa, eta aldea handituz doa: 2000. Urtean Nafarroa aurretik egotetik (+143 €) 2022an Euskal Herriaren aldeko 2.000 € egotera (EH: 21.400 €, Nafarroa 19.400 €).


Lanaren produktibitate nominala, Nafarroa Garaia eta Euskal Herria. 2000-2023




Laneko orduko lan produktibitate erreala, Nafarroa Garaia eta Euskal Herria, 2000-2023 (2015 oinarri)




Kapital Finkoaren Eraketa Gordinak (KFEG) (BPGaren %), Nafarroa Garaia eta Euskal Herria, 2000-2022 (2015 oinarri)




● Langile bakoitzeko soldata (€). Nafarroa Garaia eta Euskal Herria, 2000-2023)



● Soldata lan orduko (€). Nafarroa Garaia eta Euskal Herria, 2000-2023



● Errenta erabilgarria (familiaren diru-sarrera biztanleko, €). Nafarroa Garaia eta Euskal Herria, 2000-2022



Nafarroa Garaiko datuek erakusten dute eskualdearen ekonomia dinamiko eta egonkorra dela, inguruko lurraldeekin alderatuta. 2008ko eta 2020ko krisiak kolpe latzak izan ziren, baina suspertze azkarra eta sendoa gertatu da bi kasuetan.

Bestetik, Euskal Herri osoarekin alderatuta, Nafarroak posizio ekonomiko indartsuagoa mantentzen du egun, batez ere EAP BPG biztanleko adierazlean, eta horrek erakusten du biztanleko errenta erreala Euskal Herriko batez bestekoa baino handiagoa dela.

Nafarroa Garaiko ekonomiaren egitura 2000tik 2023ra bitartean aldaketa kualitatibo eta kuantitatiboak bizi izan ditu. Industriaren presentzia nabarmen mantendu den arren, zerbitzu aurreratuen gorakada da joera esanguratsuena, eta horrek adierazten du trantsizio ekonomiko bat ezagutza intentsiboko sektoreetara. Aldaketa horiek eraikuntzaren gainbeherarekin, 2008ko krisiaren geroztiko eta lehen sektorearen pisu txiki baina egonkorrearekin batera eman da.

Egitura honek erakusten du Nafarroa Garaia kokatuta dagoela Europako ekonomiaren eredu postindustrialean, baina oraindik oinarri sendo bat mantentzen duela industria tradizionalen.

Euskal Herriarekin alderatuta, Nafarroa Garaia industriari eta lehen sektoreari hobeto eusten dion ekonomia da. Hala ere, biek partekatzen dute pixkanaka zerbitzuetara eta sektore aurreratuera trantsizioan dagoen ekonomia izatea, hau da, eraikuntzaren gainbehera, eta zerbitzu aurreratuen hazkundera, post-industrializazioaren zantzu gisa.

Nafarroa Garaiko esportazioak egitura ekonomiko irekia eta lehiakortasun internazionala islatzen dute. Hazkunde iraunkorra, pandemia garaiko kalte mugatuagoa eta suspertze dinamikoa bereizgarri dira. Euskal Herriarekin konparatuta, pisu ekonomiko handia du esportazioetan, eta indar esportatzaile nabarmena erakusten du, bereziki manufaktura eta automozio sektoreetan.

Esportazioen eremuan, Nafarroak esportazioen kontzentrazio geografiko handia du, batez ere Espainian (%47,6) eta Mendebaldeko Europan. Hala ere, Frantzia, Alemania eta AEB bezalako merkatuetan kokatutako posizio sendoak ikus daitezke. Euskal Herriarekin alderatuta, Nafarroak kontzentratuago dagoen esportazio-egitura dauka.

Nafarroa Garaiko inportazioek hazkunde azkarra izan dute, batez ere 2022an, non urte bakarrean %42ko gorakada erregistratu zen, industriaren berreskurapen eta energia prezioen igoeraren ondorioz ziurrenik.

Euskal Herriko inportazioen hazkundera ere nabarmena izan da, baina Nafarroarekin alderatuta, joera leunagoa eta egonkorragoa izan da, ekonomiaren eskala handiago eta dibertsifikatuagoari esker.

Inportazioen jatorriari begiratuta, Nafarroa Garaia gero eta mendekotasun handiagoa du Espainiarekin, eta ez du inportazio-hornitzaileen dibertsifikazio argirik erakusten. Euskal Herriak, berriz, dibertsifikazio handiagoa eta Espainiarekin harreman orekatuagoa erakusten du, inportazioak gehiago banatuta daudelarik beste herrialde batzuen artean. Horrela, merkatu globalaren ikuspegitik, Nafarroak ahulezia handiagoa izan dezake hornidura-kateen aldaketekiko edo Espainiako ekonomiaren gorabeherekiko.

Beraz, Nafarroaren esportazio-eredua sendoa eta lehiakorra da, baina inportazioek estutzen dute hazkundearen errentagarritasuna eta merkataritza-oreka. Espainiarekin dagoen merkataritza-balantza, historikoki positiboa, arrisku-puntura iritsi da 2022an, eta epe motzean negatiboa bilaka daiteke. Euskal Herri osoan ere, merkataritza-oreka gero eta zailagoa da mantentzen, eta hornikuntza kanpotik gero eta garestiagoa bihurtzen ari da, bereziki 2022an energiaren eta lehengaien krisiak areagotu direlako ziurrenik.

I+G inbertsioaren bilakaera aztertuta Nafarroak lehen etapa batean (2000–2008) aurrerakada sendoa izan zuen, baina 2009tik aurrera ez du hazkunde hori mantendu, eta egonkortasun tarte batean geratu da. Euskal Herriak dinamika konstanteagoa eta egonkorra izan du, eta horrek posizio abantailatsuagoa ematen dio berrikuntza-sarearen garapenean.

Teknologia aurreratuko sektoreetan enpleguaren eboluzioa Nafarroa Garaian hazi da azken urteotan, baina oraindik ez da iritsi Euskal Herriko mailara, eta aldiroko beherakadek adierazten dute egitura ahulagoa izan daitekeela. Euskal Herriak, berriz, enplegu teknologikoaren estrategian egonkortasun eta eskalagarritasun handiagoa erakutsi du. Lanpostu kualifikatuen sorkuntza, I+Garen pisua eta industria berritzailearen zabalkundea funtsezko faktoreak dira joera horien atzean.



3



GIZARTEA

3.1

EUSKARA

Euskara Nafarroako luze-zabalean

2022ko datuen arabera, Nafarroako euskaldun proportzioaren banaketa lurraldearen ipar-hego ardatzean oso nabarmen zatitzen da. Udalerrri euskaldunen dentsitate handiena ipar-mendebaldeko eta ipar-ekialdeko zonaldeetan pilatzen da, batez ere Malerrekako, Baztango, Bortzirietako, Aezkoako, Zaraitzuko eta Sakana inguruko herrietan, non euskaldun proportzioak %70etik gorakoak dira, zenbait kasutan %90etik gertu (Araitz, Arantza, Arano, Saldias, Ituren...).


Bestalde, eremu mistoan eta erdialdeko eremu batzuetan (adibidez, Ultzaman, Lizoainen, Uharte Arakilen edo Imotzen), euskaldun proportzioak 30-60% arteko tartean dabiltza, pixkanaka beherantz eginez hegoalderantz mugitzean.

Aldiz, Nafarroa hegoaldeko udalerri gehienetan euskaldunen proportzioa oso apala da, askotan %1aren azpitik edo inguruan (Cabanillas, Azagra, Ribaforada, Milagro, Buñuel...), eta salbuespen gutxi daude.

Iruñerria: egoera nahasia

Iruñerrian, euskaldun proportzioak aldakorrak dira: Iruñean bertan %11,8koa da, baina inguruko zenbait udalerritan zertxobait handiagoa (%15-20 artean, hala nola Burlatan, Barañainen edo Zizur Nagusian).


● Euskaldun proportzioa udalerrika. Nafarroa Garaia, 2022



Leku batzuetan presentzia
sinbolikoarekin bada ere,
euskara errealitate bat da
lurralde osoan.

Iruñean, 2001 eta 2021 artean 6.748 euskaldun gehiago erregistratu dira, eta 2021ean 22.243 euskaldun bizi dira hirian. Honek erakusten du euskararen zabalkundea indartzen ari dela, urteek aurrera egin ahala. Kopuru horiekin gainera, Iruñea da euskaldun gehien dituen Euskal Herriko zazpigarren herria.

● Euskaldun kopuru altueneko 20 udalerriak (2021) eta 2001 eta 2021 arteko aldaketa



A, B eta D ereduako matrikulazioaren bilakaera Nafarroa Garaian, 2009-2023

Nafarroa Garaian, A, B eta D ereduako matrikulazioen bilakaeran zenbait aldaketa txikiak nabari dira, batez ere Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza.


Haur Hezkuntza: 2009/10 urtean, A, B eta D ereduaren matrikulatutako ikasleen ehunekoa 54,5 zen, eta 2022/23 urtean 48,3 izan da. Honek %6,2 jaitsiera adierazten du.

Lehen Hezkuntza: 2009/10 urtean, matrikulazioak % 51,9 izan ziren, eta 2022/23 urtean, % 45,2ra jaitsi dira. % 6,7ko jaitsiera egon da, baina, oro har, matrikulazioa %45 inguruan egon da azken urteetan.

Batxilergoa: Batxilergoan matrikulazioa egonkor mantendu da. 2009/10 urtean % 27,1 zen eta 2022/23 urtean % 27,9ra igo da. % 0,8 igoera izan da, baina aldaketa oso txikia da. Batxilergoan matrikulazioa, oro har, % 28 inguruan egon da.

Laburbilduz, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza jaitsiera txikiak egon badira ere, matrikulazioa oraindik altua da (%45 inguruan). Batxilergoan, aldiz, egonkortasunarekin jarraitu da.

● A, B eta D ereduako matrikulazioaren bilakaera Nafarroa Garaian, 2009-2023 (%)



Euskararen presentzia duten ereduakoko matrikula % 45 inguruan mantentzen da

3.2

FORMAZIO MAILA

Nafarroa Garaiko eta Euskal Herriko 25-64 urte arteko herritarren formazio mailaren bilakaera (2000-2024)


Nafarroa Garaian, azken 24 urteetan, ikasketarik ez edo bigarren mailako hezkuntzatik behera dutenen ehunekoa nabarmen jaitsi da. 2000. urtean, % 55,1 izan zen, eta 2024. urtean % 26,9a murriztu da. Bigarren mailako hezkuntzaren ehunekoa 2000. urtean % 15,0koa zen, eta 2024. urtean % 23,0ra igo da. Hirugarren mailako hezkuntzako pertsonen ehunekoa 2000. urtean % 29,9koa zen, eta 2024. urtean % 50,1era igo da. Beraz, argi ikusten da Nafarroa Garaian hirugarren mailako hezkuntzako pertsonen proportzioa nabarmen handitu dela azken bi hamarkadetan, eta herritarren hezkuntza maila orokorrean igo egin dela.

Euskal Herrian, antzeko bilakaera ikus daiteke. Ikasketarik ez dutenen ehunekoa 2000. urtean % 50,6koa zen, eta 2024. urtean % 21,3ra jaitsi da, bigarren mailako hezkuntza dutenena %18,9tik % 25,2ra igo da eta hirugarren mailako hezkuntzaren ehunekoa % 30,5etik % 53,5era igo da.


Beraz, ikasketarik ez dutenen ehunekoa Nafarroa Garaian eta Euskal Herrian nabarmen jaitsi da eta beste bi mailak igo. Hala ere, Euskal Herriak hezkuntza maila altuenekoen proportzio handiagoa mantentzen du.

● 25-64 urte artekoen formazio maila (%). Nafarroa Garaia eta Euskal Herria. 2000-2024


Nafarroa Garaia



Euskal Herria



● 25-64 urte artekoen formazio maila (hirugarren maila). Nafarroa Garaia eta Euskal Herria, 2000-2023 (%)




3.3

HERRITARREN JARDUERA

Jarduera tasa, 15-64 urtekoetan (2000-2024):

Jarduera tasa, lan merkatuan ari den pertsonen proportzioa neurtzen duen adierazlea da, eta horren bilakaerak ekonomiaren egoera eta lan merkatuko joerak azaltzen laguntzeko balio du.

● Jarduera tasa orokorra, 16-64 urtekoena, Nafarroa Garaian eta Euskal Herrian, 2000-2024 (%)


**Nafarroa Garaiko jarduera tasa (2000-2024):**

Nafarroa Garaian, azken 24 urteetan, jarduera tasa orokorra etengabe igo da, nahiz eta tarteka aldaketa txikiak egon, batez ere krisi ekonomikoak edo lan merkatuaren bilakaerak eragindakoak. 2000. urtean Nafarroa Garaiko jarduera tasa % 67,1ekoa zen, eta 2024. Urtean % 75,6ra iritsi da.

Sexu-generoaren arabera, gizon eta emakumeen artean tarteak nabarmenak dira, baina bien arteko aldea urtez urte txikitu da. 2000. urtean gizonen jarduera tasa % 81,5ekoa zen eta emakumeen artean % 52,0koa, hau da, gizonak askoz ere gehiago parte hartzen zuten lan merkatuan. Hala ere, 2024. urtean gizonen jarduera tasa % 78,9ra jaitsi da, eta emakumeena % 72,2ra igo da. Alde horrek adierazten du emakumeen lan merkatuko parte-hartzea nabarmen hobetu dela, genero-desberdintasuna apur bat murriztuz.

Adin-taldeka, 15-24 urtekoen eta 55-64 urtekoen jarduera tasa azpimarratu daitezke. 15-24 urtekoen kasuan, tasa beti izan da baxuagoa, nagusiki hezkuntza arrazoiak eta, batez ere, 2008ko krisi ekonomikoak eragindako lan aukeren murrizketak direla eta. 2000. urtean 15-24 urtekoen jarduera tasa % 47,6koa zen, eta 2024. urtean % 37,1koa izan da. Bestetik, 55-64 urtekoen taldeak egoera guztiz kontrakoa du. Talde honek, hasiera batean, lan merkatuan parte hartze txikia zuen, gazteenen parekoa, baina azken hamarkadetan etengabe hazi da. 2000. urtean 55-64 urtekoen jarduera tasa % 44,3koa zen, eta 2024. urtean % 73ra iritsi da.

Jarduera tasa orokorra eta zenbait aldagaien arabera. Nafarroa Garaia, 2000-2024 (%)



Euskal Herriko jarduera tasa (2000-2024):

Euskal Herrian, 2000. urtean, jarduera tasa orokorra Nafarroa Garaikoaren parekoa zen (% 66,8), baina 2024. urterako ezberdintasun txiki bat sortu da, Euskal Herriak Nafarroa Garaia gaindituz % 76,0ra iritsiz. Euskal Herrian ere gizon eta emakumeen artean aldeak ikusten dira, baina emakumeen parte-hartzea nabarmen hazi da, Nafarroan bezala.


Generoari dagokionez, 2000. urtean Euskal Herrian gizonetako jarduera tasa % 78,3koa zen eta emakumeena % 53,7koa. Gaur egun, emakumeen parte-hartzea asko hazi da, eta 2024. urtean emakumeen tasa % 72,7ra iritsi da, gizonena, berriz, % 78,1era jaitsiz.

Aldi berean, 15-24 eta 55-64 urtekoen adin-taldeen Euskal Herrian ere aldaketa handiak izan dituzte. 15-24 urtekoen kasuan, Euskal Herrian ere, 2000. urteko % 40,8ko tasa, azken urteetan jaitsi egin da, 2024. urtean % 32,7ra iritsi delarik. 55-64 urtekoen kasuan, joera orokorrean Euskal Herrian ere antzeko bilakaera izan da; 2000. urtean % 37,5koa zen eta 2024. urtean % 70,7era iritsi da.

Beraz, bi eremuek, Nafarroa Garaia eta Euskal Herriak, jarduera tasen bilakaeran joera orokor berdinak izan badituzte ere, alde batzuk nabariak dira. Euskal Herriak, oro har, 2000. urtetik 2024. urtera arteko bilakaeran Nafarroa Garaia gainditu du, batez ere emakumeen parte-hartzean. Nafarroan emakumeek geroago hasi dute lan merkatuan parte hartzeko erritmo handiagoa, eta horrek 2024. urterako % 72,2koa izatea ekarri du, Euskal Herriko % 72,7arekin batera.

Gazteen eta adinekoen taldeetan, aldiz, bi eremuetan antzeko joerak izan dira, hala ere, Nafarroa Garaian 15-24 urtekoen jarduera tasa pixka bat hobea izan da urte batzuetan, nahiz eta azkenekoetan horiek jaitsi egin diren bi eremuetan. 55-64 urtekoen taldeak, berriz, bi lurralde eremuetan gehien hazi den adin-taldea izan da, baina Nafarroa Garaian zertxobait gehiago.


● Jarduera tasa orokorra eta zenbait aldagaien arabera. Euskal Herria, 2000-2024 (%)



3.4

EMPLEGU MAILA

2000. urtean, Nafarroa Garaiko 15 eta 64 urte bitarteko biztanleen enplegu tasa orokorra % 64koa zen. Hamarkadaren hasieran goranzko joera nabarmena izan zuen, eta 2007an % 71,2ko mailara iritsi zen, serie honetan izan zuen baliorik altuena. Ondoren, 2008ko krisi ekonomikoaren ondorioz, enplegu tasak behera egin zuen, 2013an % 61,1era iritsiz. Hala ere, 2014tik aurrera berriro suspertzen hasi zen, eta 2024an, azken datuen arabera, % 69,8ra igo da.



Sexu-generoaren arabera bilakaera

Emakumeen enplegu tasa 2000an % 47,7 zen Nafarroa Garaian, eta urtez urte haziz joan da, 2024an % 66,1era iritsi arte. Gorakada hori 18,4 puntu ingurukoa da 24 urtean, eta genero arteko arrakala gutxitzean lagundu du.


Gizonen kasuan, 2000ko % 79,6ko tasa oso altua zen, eta 2008an maximoa jo zuen % 81,2ko mailarekin. Ondoren beherakada etorri zen, batez ere krisiaren ondorioz, eta 2013an % 66,3ra jaitsi zen. 2024rako % 73,4ko mailara igo da berriro, baina oraindik ez da krisi aurreko mailetara itzuli.

Adin-tarteen arteko desberdintasunak

15-24 urte bitartekoen enplegu tasa 2000an % 34,5 zen Nafarroan. Ondoren gorabehera handiak izan ditu: 2007an % 39,9ra iritsi zen, baina krisiaren ondoren nabarmen jaitsi, eta 2013an % 15,7ra erori zen. 2024an % 24,9ra igo da, baina oraindik urrun dago krisi aurreko mailetatik.

55-64 urte bitartekoek, aldiz, bilakaera positiboagoa izan dute: 2000ko % 43,8tik 2024ko % 69,2ra, ia 26 puntu gehiago.

● Enplegu tasa orokorra eta zenbait aldagaien arabera. Nafarroa Garaia, 2000-2024 (%)




Euskal Herrian, enplegu tasak Nafarroakoekin antzeko bilakaera izan du. 2000an % 59,1 zen, eta 2007an % 68ra igo zen, baina 2013an % 61,8ra jaitsi zen. 2024an berriro gorakada izan du eta % 69,4ra iritsi da, Nafarroako %69,8tik oso gertu.

Emakumeen enplegu tasa 2000an % 45,1 zen, eta 2024an % 67,2, Nafarroakoarekin oso paretsua. Gizonen enplegu tasa berriz, 2000an % 73,1 zen eta 2024an % 71,6. Hau ere Nafarroako datuarekin (73,4) parekoa da.

Adin-tarteei dagokienez, 15-24 urtekoak % 28,5etik (2000) % 24,1era (2024), beherakada nabarmena eta Nafarroan bezalako joera. 55-64 urtekoak % 35,3tik (2000) % 66,1era (2024), igoera nabarmena.

● Enplegu tasa orokorra eta zenbait aldagaien arabera. Euskal Herria, 2000-2024 (%)



3.5

LANGABEZIA MAILA

Langabezia tasa Nafarroa Garaian eta Euskal Herrian (2000–2024)

2000. urtean, Nafarroa Garaiko langabezia tasa orokorra % 4,6koa zen, nahiko baxua. Datu hauek urte batzuetan ehuneko baxu horietan mantentzea lortu zen. Hala ere, 2008ko krisi ekonomikoak inpaktu bortitza izan zuen: 2013an langabezia % 18ra igo zen, hau da, lau aldiz handiagoa krisi aurreko maila baino.

Krisia gainditu ahala, 2014tik aurrera beheranzko joera mantendu da, eta 2024an % 7,7ra jaitsi da, baina oraindik ez du krisi aurreko maila baxuetara itzuli.

Sexu-generoaren arabera joerak


Emakumeen langabezia tasa 2000an % 8,3koa zen. Gorabeherak izan ditu urteetan zehar, 2013an % 19ra iritsiz. 2024an % 8,5 da, hau da, 2000ko mailaren antzekoa.

Gizonen langabezia tasa baxuagoa izan da beti: 2000an % 2,3koa zen, eta 2024an % 7,0 da. Emakume eta gizonen arteko aldea handiena mende hasieran eta krisi osteko urteetan izan da, baina azken urteetan murrizten joan da.


Adinaren arabera desberdintasunak

55-64 urtekoen langabezia tasak gorakada handia izan zuen 2008–2014 artean (gainontzeko adierazleak bezala), baina 2024an % 5,3ra jaitsi da.

● Langabezia tasa orokorra, 16-64 urtekoena, Nafarroa Garaian eta Euskal Herrian, 2000-2024 (%)



● Langabezia tasa orokorra eta zenbait aldagaien arabera. Nafarroa Garaia, 2000-2024



Euskal Herriko langabezia tasak antzeko bilakaera izan du. 2000an % 10,5 zen, eta 2007an % 6,1era jaitsi zen. 2013an % 16,2ko maximoa lortu zuen, eta hortik behera egin du 2024an % 8,0 izatera iritsi arte.


Generoaren araberako joerak:

Emakumeak: 2000an % 16,1 eta 2024an % 7,6. Nabarmen hobetu da.

Gizonak: 2000an % 6,7 eta 2024an % 8,4. Tasa hau gorago dago emakumeena baino 2024an, lehen aldiz serie osoan.

55-64 urtekoen langabezia 2009an % 6,6 zen, eta 2024an % 6,3.

● Lagabezia tasa orokorra eta zenbait aldagaien arabera. Euskal Herria, 2000-2024



3.6


KONTSUMO PREZIOEN BILAKAERA

Kontsumo prezioen indize armonizatua (KPIA). Bilakaera. Nafarroa Garaia eta Euskal Herria, 2002-2024

Nafarroa Garaian, KPIA-ren balioa 2002an 76,9 zen eta 2024rako 123,7-ra iritsi da, hau da, 46,8 puntu igo da 22 urtean. Igoera 2010etik aurrera nabarmenagoa izan da, urte horretatik aurrera KPIA balioa handituz joan baita, nahiz eta tarteka balioak apur bat gelditu diren, hala nola 2014 eta 2015ean. 2020an, pandemiak eragindako ezegonkorra eta ekonomia-prozesu bereziek, 116,4 puntuko igoera ekarri zuten, hurrengo urteetan guztiz egonkortu gabe jarraitu zuelarik.

Euskal Herriarekin alderatuz, Nafarroa Garaian KPIA-ko igoera pixka bat arinagoa izan da 2002tik 2024ra bitartean, baina Euskal Herriko datuekin ezberdintasun handirik ez du. Bien arteko aldeak ikusita, datuek erakusten dute bi eskualdeek antzeko prezio igoera tasa izan dutela.

Kontsumo prezioen indize armonizatua (KPIA). Bilakaera. Nafarroa Garaia eta Euskal Herria, 2002-2024



3.7

POBREZIA ARRISKUA


Pobrezia-arriskua gora Nafarroan: %18,3ra iritsi da 2024an, Euskal Herriko batez bestekoa gaindituz.

Nafarroa Garaian, pobrezia eta bazterketa sozialaren arriskuan dauden biztanleen ehunekoa %13,9 zen 2015ean, eta urte batzuetako jaitsiera txikiaren ondoren, %12,3ra iritsi zen 2020an. Handik aurrera, gorakada etengabea izan da: %14,7 (2021), %14,5 (2022), %17,2 (2023) eta %18,3 (2024).

Euskal Herri osoan, arriskua %17,2koa zen 2015ean, eta 2018an jaitsiera nabarmena izan zuen (%12,8). Geroztik, igoera txikiagoak izan dira, eta azken urteetako datuak honako hauek dira: %15,9 (2021), %15,8 (2022), %16,2 (2023) eta %15,9 (2024).

Beraz, azken datuen arabera, Nafarroan arriskua Euskal Herriko batez bestekoa baino handiagoa da, eta azken urteetan alde hori handitu egin da.

● Pobrezia eta bazterketa sozial arriskua. Nafarroa Garaia eta Euskal Herria, 2015-2024 (%)



3.8


GIZARTE BABESEKO INBERTSIOA

Nafarroako gizarte-gastua BPGaren %20,5era iritsi zen 2019an, Euskal Herriko batez bestekoaren azpitik mantenduz.

2003tik 2019ra, Nafarroa Garaian gizarte-prestazioetan egindako gastua Barne Produktu Gordinaren (BPG) %16,1etik %20,5era igo da. Igoera batez ere 2008ko krisi ekonomikoaren ondoren eman zen eta gero mantentzen joan da.

Euskal Herri osoan, aldiz, gastua handiagoa izan da epe osoan: 2003an %18,9koa zen eta 2019an %24koa. Beraz, Euskal Herriko gastuaren batez bestekoa sistematikoki handiagoa izan da.

● Gizarte-prestazioetan gastua BPGaren %etan. Nafarroa Garaia eta Euskal Herria, 2003-2019 (%)



Euskaldunen presentzia geografikoki oso desorekatua da Nafarroan: Euskaldunen proportzio handiena ipar-mendebaldeko eta ipar-ekialdeko eskualdeetan dago, zenbait udalerritan %90era iritsiz. Erdialdean proportzioak 30-60% artean dabiltza, eta hegoaldean ia hutsalak dira. Iruñean, %11,8ko euskaldun proportzioa dago, baina kopuruz Euskal Herriko zazpigarren udalerria da euskaldunen zenbakian.

Euskaldunen kopuru absolutua Iruñean nabarmen hazi da: 2001-2021 artean, hirian 6.748 euskaldun gehiago erregistratu dira, eta 2021ean 22.243 euskaldun bizi ziren bertan.

Eredu elebidunetako matrikulazioak apaldu dira Haur eta Lehen Hezkuntzan, baina egonkorak dira Batxilergoan: 2009tik hona, A, B eta D ereduaren matrikulazioa %6 inguru jaitsi da Haur eta Lehen Hezkuntzan, baina oraindik %45 inguruko presentzia dute. Batxilergoan, aldaketarik handirik ez da izan, eta matrikulazioa egonkor mantendu da %28 inguruan.

Nafarroa Garaian eta Euskal Herrian, azken 24 urteetan, ikasketarik ez edo bigarren mailako hezkuntzatik behera dutenen ehunekoa nabarmen jaitsi da eta hezkuntza maila altuenekoen proportzioan igoerak izan dituzte. Hala ere, Euskal Herriak hezkuntza maila altuenekoen proportzio handiagoa mantentzen du oraindik.

Nafarroa Garaian eta Euskal Herrian lan merkatuaren parte-hartzea hazi egin da, eta generoen arteko desberdintasunak murriztu dira, tasa orokorretan ia parekatzeraino. Hala ere, gazteen parte-hartzea oraindik baxua da eta okerrera egin du azken urteetan, aldiz adinekoen parte-hartzea hazi egin da.

Enplegu tasari erreparatuta, Nafarroa Garaia Euskal Herriaren parean edo zertxobait aurretik dago, bereziki gizonen eta 55-64 urtekoen artean. Emakumeen enplegu tasa Euskal Herrian zertxobait altuagoa da, nahiz eta bi eremuetan ere pareko bilakaera egon den azken bi hamarkadetan. Gazteen enplegu tasa baxua da bi lurraldeetan, eta ez da oraindik krisi aurreko mailetara itzuli. Azkenik, nagusiagoen parte-hartzeak igoera nabarmena izan du, eta adin-tarte horren garrantzia gero eta handiagoa da lan merkatuan.

Azkenik, langabeziari dagokionean, langabezia tasa Nafarroan zertxobait txikiagoa da egun Euskal Herriarekin alderatuta, batez ere gizonen eta 55-64 urtekoen kasuan. Emakumeen langabezia Euskal Herrian apalagoa da 2024an, nahiz eta bi lurraldeetan nabarmen jaitsi azken urteetan.

Krisialdiaren eragina (2008–2013) nabarmena izan zen bi lurraldeetan, baina Nafarroa Garaian gehiago sentitu zen 2013an % 18ko langabezia tasarekin.

Prezioen parekoa: Nafarroa Garaian kontsumo prezioen igoera handia izan da azken bi hamarkadetan (% 46,8), baina Euskal Herrikoarekin alderatuta, biek antzeko inflazio-bilakaera izan dute.

Pobrezia-arriskuan gorakada: 2020tik aurrera, Nafarroan pobrezia eta bazterketa sozialeko arriskua hazi da eta 2024an % 18,3ra iritsi da, Euskal Herriko batez bestekoa (% 15,9) gaingiduz, eta alde hori areagotzen ari da.

Gizarte-gastu apalagoa: Nafarroako gizarte-prestazioen gastua BPGaren % 20,5 izan zen 2019an, Euskal Herriko batez bestekoaren (% 24) azpitik jarraituz. Hau da, gastuaren igoera egon arren, Euskal Herri mailan baino txikiagoa da oraindik.



4



INGURUMENA

4.1

AIREAREN KUTSADURA


Isurketak biztanleko gutxitu egin dira Nafarroan eta Euskal Herrian 2005etik 2022ra.

Nafarroa Garaian, berotegi efektuko gasen isurketak biztanleko 2005ean 11,9 tonako maximoa izan zuten eta 2023rako 5,9 tonara jaitsi dira. Isurketen murrizketa nabarmena da 2008tik aurrera.

Euskal Herrian, 2005ean 9,7 tona izan ziren biztanleko, eta 2023an 5,3 tona, beharrezko joera antzekoa erakutsiz.

Bi lurraldeetan isurketak nabarmen jaitsi dira azken hamarkadan, baina 2023an oraindik Nafarroako tasa Euskal Herrikoa baino zertxobait altuagoa da.

● Berotegi Efektuko Gasen gutzirako isurketen bilakaera (Ktn CO₂ 1.000 biztanleko).
Nafarroa Garaia eta Euskal Herria 1990-2023 (%)



4.2


KLIMA ALDAKETA

Euskal Herrian eta Nafarroan berokuntza-gradu egunak nabarmen jaitsi dira 2023an.

Nafarroa Garaian, 2023ko balioa 1.743,6 gradu izan zen, Euskal Herrikoaren parekoa, baina tradizionalki Nafarroa gradu gehiagorekin egon da, balio altuagoekin 2.500 gradu inguruan 1980ko hamarkadetan eta 2000ko hamarkadaren hasieran 2000 berokuntza-gradu inguruan egon zen. Egun, esan bezala, 1.700etik gertu dago. 45 urteetan, gora-beherako txikiak egon badira ere, beheranzko joera argia da.

Euskal Herrian 2023an 1.539,1 gradu egon ziren, azken 45 urteetako daturik baxuena. 1980ko hamarkadaren erdialdean, berokuntza-graduak gehiengoan 2.300 inguruko balioak izan ziren.

● Berokuntza-gradu egunak. Nafarroa Garaia eta Euskal Herria, 2000-2024



Euskal Herrian eta Nafarroan berokuntza-gradu egunak nabarmen jaitsi dira 2023an

4.3

ENERGIAREN KONTSUMOA ETA ERREGAIK


Nafarroa Garaian energia kontsumoa Euskal Herrikoarena baino altuagoa izan da 2010-2020 epean.

Nafarroa Garaian, 2010 eta 2020 artean, energia kontsumoa 32,0 ktep/10.000 biztanleko baliotik 26,8 ktep/10.000 biztanleko baliora jaitsi da. Kontsumoa 2016 eta 2017 urteetan igo egin zen, baina gero berriro jaitsi zen.

Euskal Herrian, aldiz, 2010ean 26,0 ktep/10.000 biztanleko balioa zuen eta 2020an 21,5 ktep/10.000 biztanleko baliora iritsi zen. Jaitsiera etengabea izan zen, nahiz eta kontsumoa 2016-2019 artean egonkor mantendu zen.

Alderatuta, Nafarroa Garaian kontsumoa beti altuagoa izan da Euskal Herrikoaren aldean, nahiz eta bi kasuetan jaitsiera antzekoa izan den azken urteetan.

● Energiaren Azken Kontsumoak (Ktep/10,000 biztanleko). Nafarroa Garaia eta Euskal Herria, 2010-2020 (%)




Nafarroa Garaian eta Euskal Herrian, petrolioaren eta gas naturalaren erabilera nagusi izan dira 2011-2020 epean.

Nafarroa Garaian, petrolioaren erabilera (% 45,5 2011n) eta gas naturala (% 23,5 2011n) energia kontsumoaren osagai nagusiak izan dira 2011-2020 artean. Energia berriztargarriak % 5,3ra iritsi ziren 2020an, eta energia elektrikoa puntu bat, % 21,5era igo zen.


Euskal Herrian, petrolioaren proportzioa (% 39,8 2011n) eta gas naturala (% 26,2 2011n), nagusi izateaz gain petrolioaren proportzioa handitu egin da (% 43,3ra) eta elektrizitatearena jaitsi (% 24,2ra, 1,3 puntu). Energia berriztagarriak ia bi puntu igo dira, %7,9ra igo ziren 2020an.

Alderatuta, Nafarroa Garaian gas naturalaren eta petrolioaren erabilera pixka bat handiagoa izan da, baina petrolioaren erabilera gurutatu egin da bien artean, Nafarroan behera eginez eta Euskal Herrian gora.

● Energiaren azken kontsumoa, energia moten arabera (Ktep/mila biztanleko). Nafarroa Garaia, 2011-2020 (%)



● Energiaren azken kontsumoa, energia moten arabera (Ktep/mila biztanleko). Euskal Herria, 2011-2020 (%)




4.4

ELIKAGAIEN KONTSUMOA

Nafarroako janari kontsumoa 2008-2023 artean jaitsi da, Euskal Herrikoa baino gehiago.

2008 eta 2023 bitartean, Nafarroa Garaiko janari kontsumoa 375.356 mila kilo edo litroetatik 356.704 mila kilo edo litroetara jaitsi da. Euskal Herrian, aldiz, janari kontsumoa 2.012.068 mila kilo edo litrotik 1.779.969 mila kilo edo litroetara jaitsi da. 2013tik, krisi ondorengotik alderatzen badugu, Euskal Herrian kontsumoak beherantz egin du, baina proportzionalki Nafarroan gehiago murriztu da kontsumoa.

● Nafarroa Garaiko eta Euskal Herriko biztanleriaren janari kontsumoa (mila kilo edo litro). 2008-2023




2008 eta 2023 artean, Nafarroa Garaiko janari kontsumoa pertsonako urtean 609 kilo edo litroetatik 531 kilo edo litroetara jaitsi da. Hala ere, jaitsiera hori txikiagoa izan da Euskal Herriko biztanleriaren kontsumoarekin alderatuta, non 657 kilo edo litroetatik 554 kilo edo litroetara jaitsi den.


Fruta freskoa eta barazki freskoa kontsumoan nabarmenak izan dira bi lurraldeetan, baina Nafarroan gehiago igo da barazkien kontsumoa (68 kilo edo litro 2023an), eta Euskal Herrian aldiz, egonkorra mantendu da (57 kilo edo litro).

Nafarroan, esnearen eta ogiaren kontsumoak behera egin du, eta Euskal Herrian, haragiaren eta arrainaren kontsumoak ere murriztu dira 2008tik 2023ra bitartean.

● Nafarroa Garaiko biztanleriaren janari kontsumoa (kilo edo litro pertsonako urtean). 2008-2023



● Euskal Herriko biztanleriaren janari kontsumoa (kilo edo litro pertsonako urtean). 2008-2023




Nafarroa Garaiko eta Euskal Herriko janari kontsumoaren egitura, motaren arabera, 2023an antzekoak izan dira.

2023an, Nafarroa Garaiko biztanleek fruta freskoa (%17,8) eta barazki freskoa (%12,7) gehiago kontsumitu zituzten Euskal Herriko biztanleek baino. Hala ere, Euskal Herrian esnearen kontsumoa (%13,4) gehiago izan zen Nafarroan (%12,7), eta arrainaren kontsumoa Euskal Herrian (%4,0) Nafarroan (%3,6) baino altuagoa izan zen.

Bi lurraldeetan, "beste" kategorian sartzen diren janariak nabarmendu ziren, Nafarroan %28,6 eta Euskal Herrian %30,6.

● Nafarroa Garaiko eta Euskal Herriko biztanleriaren janari kontsumoa, motaren arabera (%). 2023



Ingurumena atal honetan, Nafarroa Garaiko eta Euskal Herriko ingurumeneko adierazleak aztertu dira, eta bi lurraldeen artean alderaketak egin dira. 2005 eta 2022 bitartean, berotegi efektuko gasen isurketak nabarmen jaitsi dira bi lurraldeetan, baina Nafarroan oraindik tasa handiagoak daude. Berokuntza-graduak jaitsi egin dira, eta bi lurraldeetan beheranzko joera argia dago. 2010 eta 2020 artean, Nafarroa Garaiko energia kontsumoa Euskal Herrikoaren aldean altuagoa izan da, nahiz eta bi kasuetan jaitsiera izan den. Petrolioaren eta gas naturalaren erabilera nabarmendu da bi lurraldeetan, baina Nafarroan erabilera handiagoa izan da 2020an.

Janariaren kontsumoa aztertuta, Nafarroa Garaian 2008 eta 2023 artean jaitsiera txikiagoa izan da Euskal Herrikoaren aldean. 2023an, bi lurraldeetan fruta freskoa eta barazki freskoa gehiago kontsumitu dira, baina Nafarroan barazkien kontsumoa handiagoa izan da. Azkenik, janariaren egitura motaren arabera antzekoa izan da

METODOLOGIA LABURPENA

Euskal Herri eta Nafarroa Garai mailako adierazle sistemaren metodologiaren deskribapena

Adierazle sistema hau Euskal Herriko garapenaren oinarritzko diagnostikoa eskaintzeko sortuta dago, demografiari, ekonomiari, jendarteari eta ingurumenari lotutako eremuak kontuan hartuz. Nafarroa Garaiko adierazleekin bateragarri izatea bilatu dugu, eta, horretarako, hainbat erakunderen datuak konbinatu ditugu.


Irizpide orokor gisa, adierazleen bateragarritasuna edota alderagarritasuna bermatzeko, estatistika bulego ofizialek darabilten definizioak eta metodologia komunak erabili dira. Lan honetan datuak biltzeko orduan NASTAT hartu da erreferentzia gisa, beti ere eremu geografiko ezberdinetako datuen bateragarritasuna edota alderagarritasuna ziurtatuta. Hori posible ez zenean, goragoko estatistika bulegoetako datuetara jo da.

Zenbait adierazletan Euskal Herriko datua sortzeko edo lortzeko, lehenik Ipar Euskal Herriko datuaren estimazioa egin behar izan da, datu propiorik ezean, eta ondoren gainontzeko datuekin batera haztatu.

Aldagai askotan estatistika erakundeek aurreikuspenak edo estimazioak egiten dituzte, eta nolabait datu “berriagoak” eskaini. Txosten honetan, finkatutako datuen alde egin dugu. Izan ere, aurreikuspen edo estimazio horietako asko finkatzen direnean aldatzen dira, eta, beraz, orientazio bezala erabil daitezke une jakin batean, baina, lan honen helburuak kontuan hartuta, dagoeneko finkotzat jotzen diren datuen alde egin dugu. Hori dela eta, adierazle batzuetan azken datua orain dela hiru edo lau urtekoa da.

Azkenik, badira datu batzuk —biztanleriarenak, adibidez— desagregazio mailaren arabera erreferentziazko urtea berriagoa edo zaharragoa dutenak. Horregatik, adierazle baten datu batentzat erreferentziazko urtea ezberdina izan daiteke, alderaketa egiten den maila geografikoaren arabera edo datu horren segmentuaren arabera (datu orokorretik adinaren edo sexu-generoaren arabera, adibidez).

Adierazleei dagokienez, horiek biltzeko lau eremu zehaztu ditugu (demografia, ekonomia, jendartea eta ingurumena), eta eremu bakoitzaren barruan zenbait adierazle. Horiek, ondoren, grafiko mota ezberdinetan irudikatu ditugu.



Lau eremu horien barruan, honela multzokatu ditugu landutako 29 adierazleak:

1. Demografia

Demografiari lotutako adierazleek Euskal Herriko biztanleriaren egungo egoera eta joerak aztertzen dituzte. Biztanleria, dentsitatea, adin egitura, migrazioak, jaiotzak eta heriotzak.

2. Ekonomia

Ekonomiaren eremuan, hainbat adierazle aztertzen dira Euskal Herriko ekoizpen gaitasuna, merkataritza, berrikuntza eta biztanleen ongizatea neurtzeko. Honako hauek dira aztergai nagusiak:

- Barne produktu gordina (BPG) eta BPGa biztanleko, balio erantsiaren egitura, eta lanaren produktibitatea.
- Merkataritza datuak (esportazioak, inportazioak eta merkataritza-balantza).
- Berrikuntza jarduerak, enpresa inbertsioa, lansariak eta errenta datuak.

3. Jendartea

Jendarteari lotutako adierazleek biztanleriaren ongizatea eta gizarte-egoera neurtzen dute.

Euskararen ezagutzaren eta erabileraren bilakaera datuak.

Formazio maila, herritarren jarduera eta enplegu- eta langabezia-maila herritarren gizarte eta lan egoera aztertzeko.

Kontsumo prezioen bilakaera, pobrezia arriskua eta gizarte babeseko inbertsioa.

4. Ingurumena

Ingurumenari lotutako adierazleek Euskal Herriko ingurumen-kalitatearen eta iraunkortasunaren egoera islatzen dute, honako elementu hauek aztertuta:

- Airearen kutsadura, klima aldaketa eta energiaren kontsumoa eta erregaiak.
- Elikagaien kontsumoa, Euskal Herriko kontsumo ohiturak eta baliabideen erabilera aztertzeko.



MAPAK

Adierazle sistema honek Euskalgeok eta Datu Tailerrak sortutako mapak erabiltzen ditu eremu geografikoen datuak espazioan kokatzeko eta modu bisualean irudikatzeko. Mapa horiek Euskal Herriko barne egiturak jasotzen dituzte (udalerrika, eskualdeka, herrialdeka...) baita Euskal Herria nazioartean kokatuta ere (Europako erregioetan eta Europako estatuen artean).

Mapen azpiegitura hori baliatuta sortu ditu GAINDEGIAk txostenean dauden mapa eta grafiko guztiak.

DATU ITURRIAK

DEMOGRAFIA

1. Biztanleria: Nastat, Eustat, INE, Insee, Eurostat eta GAINDEGIA.
2. Biztanleriaren dentsitatea: Nastat, Eustat, INE, Insee, Eurostat eta GAINDEGIA.
3. Biztanleriaren adin egitura: Nastat, Eustat, INE, Insee, Eurostat eta GAINDEGIA.
4. Migrazioak: Nastat, Eustat, INE, Insee, Eurostat eta GAINDEGIA.
5. Jaiotzak: Nastat, Eustat, INE, Insee, Eurostat eta GAINDEGIA.
6. Heriotzak: Nastat, Eustat, INE, Insee, Eurostat eta GAINDEGIA.

EKONOMIA

7. BPG: urte arteko hazkundera: Nastat, Eustat, INE, Insee, Eurostat eta GAINDEGIA.
8. BPGa biztanleko: Nastat, Eustat, INE, Insee, Eurostat eta GAINDEGIA.
9. Balio erantsiaren egitura: Nastat, Eustat, INE, Insee, Eurostat eta GAINDEGIA.
10. Ondasun eta zerbitzuen esportazioak: Nastat, Eustat, Espainiako Industria, Komertzio eta Turismo Ministerioa, C-Interreg, Insee, Eurostat, GAINDEGIA.
11. Ondasun eta zerbitzuen inportazioak: Nastat, Eustat, Espainiako Industria, Komertzio eta Turismo Ministerioa, C-Interreg, Insee, Eurostat, GAINDEGIA.
12. Merkataritza -balantza: Nastat, Eustat, Espainiako Industria, Komertzio eta Turismo Ministerioa, C-Interreg, Insee, Eurostat, GAINDEGIA.
13. Berrikuntza jarduerak: Nastat, Eustat, INE, Insee, Eurostat eta GAINDEGIA.
14. Lanaren produktibitatea: Nastat, Eustat, INE, Insee, Eurostat eta GAINDEGIA.
15. Enpresa inbertsioa: Nastat, Eustat, INE, Insee, Eurostat eta GAINDEGIA.
16. Lansariak: Nastat, Eustat, INE, Insee, Eurostat eta GAINDEGIA.
17. Herritarren errenta: Nastat, Eustat, INE, Insee, Eurostat eta GAINDEGIA.

JENDARTEA

- 18. Euskara: Nastat, Eustat, Eusko Jaurlaritza. Inkesta soziolinguistikoa eta biztanleria zentsua.
- 19. Biztanleriaren formazio maila: Nastat, Eustat, INE, Insee, Eurostat eta GAINDEGIA.
- 20. Herritarren jarduera: Nastat, Eustat, INE, Insee, Eurostat eta GAINDEGIA.
- 21. Enplegu-maila: Nastat, Eustat, INE, Insee, Eurostat eta GAINDEGIA.
- 22. Langabezia-maila: Nastat, Eustat, INE, Insee, Eurostat eta GAINDEGIA.
- 23. Kontsumo prezioen bilakaera: Nastat, Eustat, INE, Insee, Eurostat eta GAINDEGIA.
- 24. Pobrezia arriskua: Nastat, Eustat, INE, Insee, Eurostat eta GAINDEGIA.
- 25. Gizarte babeseko inbertsioa: Nastat, Eustat, INE, Insee, Eurostat eta GAINDEGIA.

INGURUMENA

- 26. Airearen kutsadura: Nastat, Eustat, INE, Insee, Eurostat eta GAINDEGIA.
- 27. Klima aldaketa: Nastat, Eustat, INE, Insee, Eurostat eta GAINDEGIA.
- 28. Energiaren kontsumoa eta erregaiak: Nastat, Eustat, INE, Insee, Eurostat eta GAINDEGIA.
- 29. Elikagaien kontsumoa: Nastat, Eustat, Espainiako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa, INE, Insee eta GAINDEGIA



GAINDEGIA **2030**



PREST DIRA IBILBIDE BERRIRAKO EUSKARRI NAGUSIAK

Hamarkada honen hasierako mundu mailako osasun krisiak Euskal Herrian (beraz Gaindegian ere) utzi zuen arrastoa gaingituta, behategiak indar berritzeari ekin dio, eta hala emandio hasiera ibilbide berriari.

Birdimentsionatu egin ditu bai bere egitekoa eta bai barne-egiturak.

Lehenengoari dagokionez, Euskal Herriaren argazki sozioekonomiko eguneratua — urteroko estatistikaren bitartez landutakoa — jorratzen zentratuko da. Horretarako zerbitzua kontratazioaren bitartez lotuko da, eta ez baliabide propioz.

Txosten estatistikoa landuta, horren dibulgazioa eta edukien inguruko gogoeta saioak egitea litzateke bigarren urratsa. Dibulgazioa bai informazio orokorreko komunikabideetan, bai espezializatuetan eta bai hezkuntza mailan, eskoletan eta unibertsitatean. Gogoeta saioetarako, eduki kritikoak aukeratu, eta interes taldeei aurkeztuko litzaieke (enpresaren, sindikatuaren, administrazioaren eta ingurugiroaren arloko adituei, eta abar).






Txostenok, bai eta webgunea, beste hiru hizkuntzatan argitaratuko dira, euskaraz aparte: espainola, frantsesa eta ingelesa.

Barne egiturei dagokionez, elkarteen ohiko zuzendaritza eta bazkideen batzarraz aparte, adar berria jarri du Gaindegiak jada abian. Batzorde Zientifiko izena eman zaio. Ez da izango organo erabakitzailea, aholku emaila baizik, baina erakundearen barruan garrantzi handiko betebeharrak izango du.

Hamabost pertsonak osatzen dute batzorde hori. Horien artean Euskal Herrian diren unibertsitate guztietako adituak daude, katedradun, doktore eta ikertzaile. Hor dira Nafarroako eta Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate publikoak;



11/11/2016



Batzorde zientifikoa



Anjeles
Iztueta



Dascon
Juhane



Kiko
Caballero



Martin
Larraza



Arantxa
Díaz de Ilarraza




Oskar
Arantzabal



Alberto
Alberdi



Elena
Franco



Ramon
Zallo



Izaskun
Andueza



Mikel
Navarro



Unai
Pascual



Unai
Villalba



Joseba
Makazaga



Jaione
Etxeberria



Jose Javier
Zubikarai



Julen
Bollain

Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea eta Lapurdiko Estia izeneko Industria Teknologien Goi-Eskola. Falta dira Nafarroako unibertsitatea eta UPPA Universte de Pau y des Pays de l'Adour, baina espero da bi zentroetako adituak laster izatea batzordean.

Gehienak ekonomia, soziologia eta teknologia berrien arlokoak dira, baina badira administrazio publikoetako goi-kargudun ohiak ere.

Osakideen soslaiak ikusita, batzorde horren helburua da Gaindegia txostenei kalitate bermea eta fidagarritasuna ematea. Lehen egitekoa 2025eko eta hortik aurrerako txosten sozioekonomikoa lantzeko irizpideak proposatzea izango da.

Batzordeko koordinatzailea Anjeles Iztueta da, matematikaria eta Eustateko kide ohi, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburu ohi eta gaur egun Udako Euskal Unibertsitateko Zuzendaritza Batzordeko kidea.

Organo erabakitzaile hori osatzeko, euskal lurraldeak, genero irizpidea, sozio-ekonomiarekiko

loturak eta antzerako irizpenen arteko orekak bilatu dira, bai eta pertsonen gaitasuna ere, talde benetan plurala eta eraginkorra izan dadin. Besteak beste, Agirre Lendakaria Center, MonzonLAB eta Ipar-Hegoa fundazioko kideak daude bertan, bai eta Eusko Ikaskuntzako ordezkari bat ere, gaur egungo Gaindegia behategiko lehendakari eta garai bateko Eusko Ikaskuntzako lehendakari izandakoa, Iñaki Dorronsoro, hain zuen.

Pertsona bakarra dago Gaindegian nominan, Miriam Herrero kudeatzailea. Gainerako guztiek boluntario lana egiten dute. Egitekoen finantzaketa, bestalde, finantza erakundeetatik eta Administrazio publikoetatik egitea aurreikusten da. Gaur-gaurkoz, lerrook idazteko orduan, Laboral Kutxarekin eta Nafarroako Gobernuarekin lotu dira ekarpen konpromisoak, baina laster baterako iragarrita daude beste ekarpen esanguratsu batzuk ere.

Jardun esparrua finkatuta eta egiturazko zutabeak eraikita, ibilbide berriari ekiteko moduan da Gaindegia.



gaindegia.eus